



KULTURA JARDUNAK






ESPAÑI'AN : 12 Laurleko
ONGILLEAK : 25 »
ATZERRIAN : 17 »

YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

12^a gna. A R A N T Z A Z U'n - Pazkoaldikoa - 1960

Aldian izan zaitugunari,
Kalbarioan il zaituzten orri,
Pazko-goizez piztua zatzaizkigunari,
Betieran bizirik zaitugun orri.



TEOLOGİ
FILOSOFİ
SAYILMA

AITA SANTUAREN ITZA

1960'gn. urteak etorraldiari bere ate zuriak zabaldu zizkioneko garaian, zerbait pozgarri ba-zuan Erroma uriak guretzako gorderik bere maltzoan: Barruti-Batzarra. Eliz-edestian joan-etorri aundiko gertakaria au, inñolaz ere. Ba-dakigu, XIII' Yon'ek ze-nolako jomuga ezarri zion, orain dala urteterdi, beregain artu zun lanbide berriari. Arrezkero, gidari bizkor onek ze eratan bultz egin dion bere zeregiñari argi ikusten dugu. Bere asmo ta alegiñak ez dira alpe-rrikakoak gertatu, baizik Barruti-Batzarra biltze-arekin len-zituak borobildu, yoritsu eldu ere eldu dirala alegin oieri esker, uste dut.

Eliz Barruti-Batzar ori zala-ta, azkenaldi auetan, ludi zabaleko katolikoan biotz-gogoak Erroma aldera erorita egon dira, bai. Izan ere, bai ote gure artean Batzar onen garrantzi ta gaurkotasanik sumatu ez dun katolikorik? Ez noski. Ba-dakigu Aita Santuaren eliz-barrutia beste guzien eredu ta jarraibide azaldu izan dala. Landa leun ta zabaleko alderdi guztietatik ederki begiz jo oi dugu erdian goratzen dan mendi tontorra; era berdiñean Erroma'ko barrutia beste guzien aurrean errez nabarmendu oi da. Ta ori da bere egiteko bat: gidaritu, erakutsi, argi egin. Gaurkoan ere argi-mutil ori etzaigu ez maipean izkutatatu, Uri Santu ori mendi zokoan lurperatu, guzian

aurrean argi-printzaz dizdiratsu, mendi-gaillurrean aundikiro azaldu baino. Kristau erriari ta batez ere lurbira osoko eleiz-barrutiei aurrez aurre jarri zaien ispillu au, kristau bizitzaren gatz eta legami jeikieraille bedi!

ELIZ-BARRUTIKO BATZARRA ZER?

Inoiz inork, eliz-araudia aztertu duanak, ba-daki Barruti-Batzarrarekin zer adierazten dan. Eliz-araudiak dionez eta eliz-edestiaren bidez dakigunez, auxe dezu Barruti bateko Biltzarra: "Barruti bateko zenbait eliz-gizonen billera, Gotzai jauna buru dutela." Batzar edo Billera auek noizbeinka egiten dira, amar urtero gutxifiz, legeak agintzen dutenez. Gotzaiaren aginduz biltzen dira Barrutiko Eliz-Galdor edo Katedralean al bada. Jardungaiak apaiz bizitzari buruz izaten dira, Baiña, bere ondoreak urrutirago doaz, kristau bizitzari indar berezi bat ezartzeraño.

Barruti-Biltzarraren bitartez "goi-esker-raren aldi ta kristau bizitzak indartu" ta "eliz-dptriña ta legeen alderdi batzuk aztertu ta zuzendu" egiten dirala, -dio Aita Santuak.

Orrelako Batzarrarik ez omen da ezagutu orainñarte Erroma aldean, aitortu zigun XXIII Yon' ek berak. Zerk eragin dio, beraz, garai auetan, orrelako Batzar bati esku emateko? Azkenaldi auetan Barruti ortan sortu diran bear larriak, noski. Erne belarria bere mintzo goxo ta alaigarrira: "Anai agurgarri ta ene seme kutanak, ara zuei esan inor gutxiri azaldu diodana! Gure otroitzaldi apa-lean Goiko Jaunak, biotz zokoenean, Eliz-Batzar baten asmoa sortu zigun eta asmo ori norbaiti azaldu ere azaldu genion; eta, ara, ze-nolako asmo ederra jalki zigun aurrez aurre, biotz ukitura nunbait: Asmo bikaiña Eliz-Batzar ori, noski; baiña, zergatik ez, lenik, kristaudiaren erdi-leku dugun Erroma Uriko bear larriei lasaipena emanen dien Barruti-Batzar bati gure len asmoak zuzenduko? Izan ere Uri au 50 urteen buruan, 400.000 bizilagun geiagoz aunditu da, egunean bi milloitara eldu dalarik". Erroma Uriko jendea neurri gabe ugaritzearekin, Elizarentzat arazo berro, ugari ta zailak sortu dira. Arazo ta oztopo oiek alik azkarren ta ondoen

aizatzearren, orainarte ez bezela, Erroma Uriko zenbait eliz-gizonez baliatu da Aita Santua. Ara or zergatik bilduarazi duan Batzar ori.

Oraindaino orrelako Batzarrarik ez dala izan eta, ez degu uste izan bear Erroma Barrutiko Eliz-gauzak nola-ala egongo zirala. Utikan gugandik orrelako bururakizuna! XXIII Yonek aitortzen digunez, Eliza osoaren buru dan Aita Santuak ez omen du orrelako Batzarren bearrik izan. Bere Barrutia bere etxe ingurua bezela ongi ezagutzen zuan, ta etxe bateko gora-beerak lege bereizirik gabe zuzendu oi diranez Aita Santuak ere bere Barrutia, orainarte, Batzar-modu oietara jo gabe gidatu dute.

Bidalien bideak urratuz:

Azken barruti-batzar onek bidaliena izan du eredu; Aita Santuak esaten zigun Len-Batzarren oroimen goxoa opa egiñez: "Bai atsegingarri zaigula Batzar uraxe oroitzea!" Ara zer dion bidalien egiñak idatzi zizkigunak: "Cum magna conquisitio fieret [15,7]." Auzia etzan nolanaikoa. Eta Pedro Jeiki ta nabari jarri zien zenbateraiñokoa zan beren egitekoa. Analok -viri fratres-, ba-dakizute Jainkoak aspaldi ezkeru autu naula, atzerriek nere aotik Berri Ona entzun eta sifetsi dezaten. Biotzak ikusten ditun Jainkoak aiek alde aitor egin baidu, Gogo Deuna, guri bezela, aieri ere emanaz; eta aien sinestez garbitu ditula, batere aien artean giza-bereizkuntzarik egin gabe. Zergaitik, ba, orain, Jainkoa tentatzen duzute, gure arbasoek eta geurok ezin eraman dugun uztarria ikasleen lepoan ezarri bear dalakoan? Baiña, au sinisten dugu, Kristoren grazia dala aiek eta gu zeruratuko gaituna. Ta bera ta besteak ixillik gelditu ziran: Ondoren Paulo ta Bernabe'k azaldu zuten, zenbateko mirari ta arrigarriak egin zitun Jainkoak aien bidez atzeritarren artean.

Ixil unetxo bat, eta Ierusalen'go Gotzai Santiago jeiki zan eta Pedro'k utzitako ariari eldurik, entzule guziak iritzi edo uste bateko jarri zitun, ots, atzerrietatik Jainkoagana biur-tzen ziranak gogait ez egiteko; Erdaikuntzara ta

Sinagogara etzirala biurtu bear. Bakarrik auxe, Moises'en legeari itzal izateko, naiz eta bere erakutsietara beartuak ez egon.

Arrezkero, Elizak bere edestian ogeitaraiño Batzar-Nagusi ta ezin konta ala Barruti-Biltzar ezagutu ditu; ta naiz aipu aundiko naiz izen gutxiko Billera oiekin, siñismen eta oituren alde zenbait erabaki ta bear-bearrezko aldaketak egin dira. Ba-du Eleizaren Buruak oratarako aimen eta eskubide, naiz berez, naiz Biltzarraren bidez; izan ere, Kristo gure Jaunak Pedro doneari eman zizkion "giltzak" berekin baiditu.

Zenbait aldaketai buruz aurrez oartu gindun Aita Santuak: "Beti berdin diraun Jaunaren egiak ere ba-du azalean zerbait aldakor." Eta len-batzarreko Bidalien jokabidea oroitzen digularik, zerutar Maixu aundiaren mendi aldeko itzaldian egiña aitatzen digu, adierazi naiez, Jesukristo'k naiz eta judutarren legea oso osoan bete, ala ere, joan-etorri gutxiko gauzetan lokarriak eten eta garrantzi aundikoak berriz onartu, burutu edo borobildu zizkigula: "Sei alditaraiño jaso zituzten bere entzuleak orrelako itz auek: 'Entzun dute antziñekoei esan zitzaiela... Nik, berriz, esaten dizuet' ". Orrela zerutar Maixu arek Lege Zarra osotu, mami-berritu, ta goragoko maillara jaso zuan.

Egungo egunean, Eliza Kristo'ren Egi-xortaren zaindari duzu batere zalantzik gabe. Egi oiek onik gordetzearren, Elizak ikaskintza zifnaren bidez Erabakiak artzen ditu ta gezurak gaitzetsi. Ala ere, Egi aldaezin oiek ("veritas Domini quae manet in aeternum") azalez jazten dituzten zenbait osagarrietan Elizak ba-daki amor egiten. "Ori gertatzen zaigu Jesus'en erakutsien Zaindari, Adierazle ta bide beretik Erakusle dugun Elizarekin... Joan-etorri gutxiko gauzeri buruz, garai-garaiko gertakizunak eska ala, zenbait aldaketa onartzen ditu", -dio Aita Santuak.

Barruti-Batzar zear zenbait itzaldi:

Zazpi itz lditaraiño egin zitun Aita Santuak, Barruti-Batzar ori bilduta egon zan zortzi egunen zear. Oietatik iru apaiz bizitza zuten

mintzagaia. Izan ere, Aita Santuak oartzten digunez, "Kristau erriko otoitz-gogo ta Jainko-egarrria berpizteko ezerez egokiagorik apaiz diranen bizi-modu dirdaitsuak eredutzat ipintea baiño!" Esan ere esan oi da, erri baten kristautasunaren sukarrara zenbaitekoa dan jakiteko, erriko apaiza benetakako artzai dan edo ez jakitea aski dala. Esaera orrek arrazoi asko du, naiz ez osoa. Orregatik beraz, garrantziko gauza, apaiz bizitzak zintzotasun gaillurrera bultzatzea. Zintzotasun ortarako bideak azaltzen dizkigu XXIII Yon'ek itzaldi oiek barna:

APAIZA KANPOTIK ETA BARNETIK.

Apaiz guziak beregan izan bear ditun doaiei buruz, auxe esaten digu Aita Santuak, Trento'ko Batzarreko erakusaldiak erakarriz: "Kristo'ren sail bereziko eliz-gizonak, biziera on eta oitura jatorrez ederturik agertu ditezela, ots, jazkera, kiñu, ibillera, mintzaera eta beste edozertan neurridunak eta beren nortasunak eskatzen dien erara beti. Erru txikienak ere aizatu bitzate, aiengan aundi bailirake; beren jokabidez guziengandik begirune santu bat lortu bear dute".

XXIII Yon'ek, oraindaiño, apaizaren azaleko jantziak besterik ez dizkigu aipatu. Ikus ditza-gun, beraz, zer dion barne doaiei buruz:

JAKITUNA: Ikasi ta jakin, jakin eta ikasi.

"Buruz neurtzen da -dio A ta Santuak-gizon baten, apaizaren, jakinduria; zentzu zuzena... Jakinduririk ez ikaslanik gabe; ta ikasi, beti bear da ikasi, bai ikas urteetan, bai eliz-lanbide santuari ekitean, bai bizitzaren azken urteetan ere... Dgun iñoiz baiño bearrago zailo apaizari, jakintz on ta zabalaren esku izatea. Ez-jakina, gauza ez dana, apaizetarako ez da egiten" [Ilbeltzaren 26'an egindako itzalditik]. "Bai apaiztegi, eliz-batzar eta billerak, bai Aita Santuek, teologilari ta eliz-Gurasoen erakuspenak, buruari nekea eskatzen diote, orrela jakinduri dordaitsua bereganatu dezan".

BIOTZDUNA: apaizaren biotza.

Apaizaren egiz ta jakinduriz bear luken

lez, bere biotza ere maitasun gainezka egon bear du. "Maitasuna Jesus'i, baiña beroa, miña, xamur-xamurra... Maitasuna bai elizari, bai anima guzieri, baiña batez ere gure apaizgintza ardura-pean arkitzen diranei: gizarte-mailla guzietako animei maitasun ori, baina eroriagoa pekatariet, era guziko beartsuei, elkar-laguntzaren premian arkitzen diran guziei".

Maitasuna, ba, baiña maitasun gardia, biotz garbikoa. Orregatik apaizak biotz garbikoa izaten saiatu bear du, apaiz egunean agindu zun bezela.

ZUURRA: izketan: apaizaren mingaiña.

"Elkar-maitasunarene etsairik gaitztoena, mingaiña gaitzki erabiltzea, noski". Ara zer dio Aita Santuak mingaiñari buruz: "Mingainaren erabiltzeari buruz, uste dugu, guziok gerala errudun, asko edo gutxi... Zuurtasuna eta maitasuna beraz, besteen erruak zentzaraztean". Askoz osasungarri-goia dala, dio XXIII Yon'ek, gauza guztietan ona ikusi ta beragan tink egitea, gaitza ta aulkeriak astindu ta igurtzitzea baiña, batez ere asmo gaitztoz egiten bada". Pedro donearen itzak erakarriz ori bera aitortzen digu: "Bizia maite ta egun onak ikusi nai ditunak mingaiña gaitzetik zaitu beza ta gezurrik ez bere ezpainetan" [IPetr.3,10]

Amaitzeko, aipatu dezagún, lurbira guziko baztarretatik Erroma ikastetxe ospatsuetara ikasurteak egitera edo osatzera joanik dauden millaka apaiz ta apaizgaiet, Biltzarreko laugarren egunez, XXIII Yon'ek egin zien itzaldia. Itz gutxitan auxe dugu itzaldiaren mamia: Elizak ez dula nai, ez, nolanaiko ugaritasuna bere geroko gizonetan, onak, naiz gutxi, ta trebeak baiña, Gedeon'en gudari-saldokoak gutxi baiña ta bulartsuak ziran bezela. Benetako apaiz ditezela, beraz, gizon-egiñak, zentzudunak, lurreko gauzetatik biotza aske goikoetara emanak, otoizaleak, Idazti Santuen irakurle bizkorrak.

Muxika tar Errupin, O.S.B.
-Lazkao'koa-

TERESA DEUNAREN IRAKATSIAK

II.- DEUNTASUNA ZER DAN (1).

Teresa nola Jainkoaganatu zan, nola deundu zan, deuntasunaz zer irakastem digun aztertu nai dutala, aurreko lanean esan nuan. Gaur, beraz, Teresa'rentzat deuntasuna zer dan aztertu nai dut. Nik itzik gutxi esango dut, Teresa bera egokiago mintzatuko zaigu.

Oso-tasun zalea dugu Teresa. Berez ere biotz aundiko zan-eta, erdizkako neurriak gogai-kagarri zitzaizkion. Gauzak edo osoan utzi edo osoan artzekoa zan.

Barne-bizi gaietan, deuntasunerako bidean ere olaxe jokatu zan. Ain zuzen, erderaz erabili oi dan itzak (perfectio) orixe esan nai du: oso-tasun. Orrengatik, ba, Teresa'ren jokabidea: goren burua oso-osorik Jaungoikoari ematea: ori da

deuntasuna.

Sarri-askotan asmorik egiten dugu. Gaur otoitza ongi egiteko asmoa; lurreko gauzeri ez lotutzekoa, biar. Berealaxe, ordea, aspertzen gera; zeken gera-ta, eman orduko berriro geureganatzen dugu. Onengatik Jaungoikoak ez damaigu maitasun osoa (V.11,I-4)(2). Eta geroago, kordegabeteak-eta, dituztenaz ari dala, onela dio: "Onezkeror borondaterik izaterik ere (gogoak) ez du nai; aukeramenik ere ez balu naiago luke, ta kentzeko eskatzen dio Jaungoikoari"(V.20,22).

Berbera dio "Deuntasunerako bidea" idaztian. Izan ere idazti biak garai batekoak dira. "Bizitza" bigarrenez eta "Deuntasunerako bidea" lenengoz urte berean gertatu zituan. Idazti ontako bosgarren ataletik amabosgarrenera artean, batez ere, Teresa'ren gogamena auxe da: gerana ta daukaguna oso-osorik Jainkoari eman bear dizkiogula. "Edozertan, dio bein, gure naia ezetsi dezagun; ortan arduratzen bazerate, igarri gabe gailurretaratuko zerate" (C.P. 12,3). Gure naia ezetzea, borondaterik ez izatea: gure naia, gure borondatea, gure burua oso-osorik Jainkoari ematea da.

Guk geren burua, gere naia, Jainkoari ematea ta Jainkoa Bera guri ematea, berriz, elkarren ondoren dabilta. Ola dio Teresa Deunak: "Errege onek ez dio bere biotza ematen, berea osorik ematen ez dionari"(C.P. 16,4). "Gogoa otoitz-bilduan asi berri dala, ain gauza aundirik beregan eukitzeko txiki dala-ta, larritu ez dedin, Jaun-

goikoa ez zaio azaltzen, barnea apurka-apurka zabalagotzen ez dion arte. Orengeatik diot Berarekin askatasuna dakarrela, jauregi au dana aunditu baitezake. Gure egitekoa au da: erabaki bizi-biziz jauregi ori Jaungoikoari eman eta ustutzea, Ark berean bezela nai duana ipini naiz kendu dezan. Ark ez du gure naimena indarrez beartzen, ematen dioguna artzen du; ez zaigu, ordea, Bera osorik ematen geu Berari osorik eman artean. Gauza jakina da au, ta garrantzi aundiko dalako oinestetan gogoratzen dizuet...ba, jente xeez eta zirtzilleriz jauregia betetzen badugu, nola sartu diteke Jauna bere aialdeko ta guzti?" (C.P. 28,12). "Naimena Jaunak beretzat daukala ere, eskuetatik kendu ta gauza makurretan jartzen dugu" (C.P. 31,12). Gure biotza bein betiko ta osorik ez diogu Jaungoikoari ematen; tori ta tatika ari gera: bitxia erakutsi eta eskeini, eskua luzatu dezatenean, ordea, berriz ere gero gordetzen dugu; bitxia eskeini ta Ari eskuratu ere bai, baiña berriro kentzen diogu. Onengatik omen dira ain gutxi gogo-bizia arretaz daramatenak (C.P. 32,8).

Teresa'rentzat gogokoi, otoizti ta oso edo deun bat dira. "Gogokoi" itzalen orde beraz, "oso" naiz "deun" ipini genezake. Deun izaten, Jaungoikoarenak izan naiez, asko asten gera; egiz ta benetan Jaungoikoarenatzen diranak, ordea, oso gutxi dira.

"Liburu ontan esan dizuedan dana gai oni dagokio, ots, geren buruak oso-osorik Egilleari

eman eta naimena Arenean jarri ta izakiengandik jarein bear dugula (C.P. 32,9). Bere idaztirik bikaiñenean ere, darabilgun galaz itz ederrik esango digu: "Ez du nai zuek ezer eukitzerik; gu-txi naiz asko, guztia Beretzat nai du" (M.V@, 1,3).

Gure donegintza ezkutu arrigarri bat da. Jaungoikoa gabe ezer ezin dezakegu. Jaungoikoaren eskerrari men egiteko ere Jaungoiko Beraren eskerra bear dugu, ta ala ere donezitatea edo ezizatea geure esku daukagu. Beiñere ez dugu ulertuko Jaungoikoaren eskerraren eta gure askatasunaren arteko jokaera arrigarria.

Donegintza ontan guri dagokiguna ikusi dugu, ots, gure burua, gure borondatea, Jaungoikoari eman bear diogula. Baiña aundi-aundika itz egitea da. Eginbear ori nola beteko dugu? Zer sustrai edo zer ondore ditu? Teresa'k xeatu digu.

"Otoitzean asiberri danak ajola au izan bear du (au ez bekizue aaztu, garrantzi aundikoa da-ta), ots, bere naimena Jaungoikoarenarekin bat ekartzeko al duan ardura guztiz ekin, alegindu ta gertutzea; eta esango dizuedanez, siñetsi idazute gogo bidean iritxi ditekera osotasunik bikaiñena ortan dagola... Emen ez dago beste erdera-mordoil-lorik, ez beste korapillorik; ortan dago gure on guztia" (M.II,8). "Gauza jakiña da osotasun betea ez dagola barneko atseginetan, ez kordegabetze ta ikuskarietan, ezta iragarmenean ere; gure naia Jaungoikoarenarekin bat ekartzean, Jaungoikoak zer nai duan igarri orduko guk ere ura borondate osoz nai izatean dago osotasun betea" (F.5,10).

Gure naia Jaungoikoarenarekin bat egiteko, berriz, Aren naia jakitea nai ta naiezkoa dugu. Bestela ez giñake adimendunoi dagokigunez jokatu. Adimenak oartu ta naimenak baietza eman gabe gizonak egin lezaken ona ezertarako ez litzaioke.

Zein da, ba, Jaungoikoaren naia?

"Jakin dezagun, ene alabatxuok, Jaungoikoaren eta urkoaren maitasuna dala egizko osotasuna; aginduok zein osoago bete, ain osoago izango gera" (M.I, 11, 17). "Aren naia zein dala uste duzute? Guztiz osoak gaitzela, Berarekin eta Aitarekin bat gaitzen Berak eskatu zion bezela... Gauza biok bakarrik Jaunak eskatzen dizkigu: Bera ta urkoa maite izatea, ortan ekin bear dugu. Ondo betetzen baditugu, Aren naia egiten dugu, ta Berarekin bat izango gera" (M.V, 3, 7). "Ontan oso ongi bagabiltz, egiña dugu dana" (Ib. 9).

Teresa mintzatu zaigu. Bere gogo-barrena zabai-zabal azaldu digu. Argiago dedin, ordea, aren gogamena laburki jarri dezagun: Deun osoak izateko, gure buruak, biotzak, naimenak, oso-osorik Jaungoikoari eman bear dizkiogu; gure naimena Jungoikoari osorik emate ori Arenarekin bat egitea da; au berriz, Aren naia betetzea da; baiña zein da Aren naia? Bera ta gure urkoa maite izatea.

Zer baten azalpen dira izkera guzti oiek. Gogo-gaietan auxe gertatzen da, gaiaren neurriko itzik ez-eta, itz asko erabilli bear. Teresa'k

ere, ba, aipatu ditugun azalpen oiek nastean erabiliko ditu, batean au, bestean ura. Berdin da. Deuntsasun-osotasunaz zer irizten zuan, zer idea zuan jakin nai genduan; eta ikusi dugu. Deuntasuna guzientzat "obiective" bat da; bakoitzak ordea, gogo berezia baitu, bereziki ulertu eta iristen du. Teresa'k nola ulertu zuan ikusi dugu. Ta zein ederki ulertu zuan! Baito da beste deunik Teresa baiño biotz-zabalagorik, Jaungoiko zaleagorik? Bere ikasle zintzo egingo al gaitu! Ni oso-osorik Jaungoikoarena eta Jaungoikoa oso-osorik neurea! Gauza ederragorik!

Ikasbide au zerbait osotu genezake oraindik. Jaungoikoa ta urkoa maite izan bear ditugu. Urkoa maite dugunentz errez ezagutu dezakegu. Jaungoikoa maite dugunentz, ordea, ez, nolabait antz eman bai, baiña: "gauza biok betetzen ditugunentz jakiteko ezaupiderik ziurrena au da: urkoa maite izatea... Jaungoikoak ain maite baigaitu, urkoari diogun maitasunagatik Beraganakoa geituko digulako, ontan ezin dezaket zalantzarik izan" (M.V.3,8). Ortik Teresa'ren irakatsiak apostolatuari damaion garrantzia. Teresa ez da berekoi, alper, atsedenezale. Bere arauari jarraituz, zenbat gogo sendatu ta zeruratu ote zituan! Amaika neke ta lan artu zituan urkoari on egitearren. Jaungoikoaren eta urkoaren maitasuna batera datoz, alegia.

Sekundino Anaiak, karmeldarra

(1) Erderazko "perfectio" adierazteko naiz "osotasun" naiz "deuntasun" erabiliko ditut, bakoitzean egokiago deritzadana.- (2) V:Vida;M:Moradas; C.P.:Camino de Perfección;F.:Fundaciones(P.Silverio).

"BERRI ONA" ETORRI ZAKU

(jarraipena)

II.- ABRAHAM FEDEDUNEN AITA

Jainkoak Abraham'i erran ziom:

"Jalgi zaite zure lurraldetik, zure aberritik;

eta, zure aitaren etxetik;

eta, zoaz erakutsiko dautzutan lurralderat."

[Asiera, 12,1]

Nork dezake ez ikusiarena egin Jainkoaren soa bere soan barna landatua sendituz geroz? Nork dezake ez entzunarena egin Jainkoaren mintzoa bere barne gordean finki adituz geroz? Alta Abraham'ek baluzke mila estakuru Jainkoaren soari ihes joaiteko! Baluzke mila arrazoin Jainkoaren mintzoaren ez ezagutzeko eta Haren manuari ez ihardesteko! Eztu haurrik. Bizkitartean ezta ere bakarrik. Ba-du familiã bat eta' bere biziã emazte batekin jo-sia dauka. Ba-ditu mutilak bere ontasunen ibiltzeko, bere artaldearen artatzeko. Ba-du anitz adixkide: nork eztu ezagutzen "Abram", Hammurabi erregeak aberastu Ur Kaldea'ko hiri nagusian?

Horra Jainkoaren dei zorrotza: "Jalgi zaitte..." Utzirik zure lurraldea, zure familiako goxotasuna, zure bizi aijeta. Horra Jainkoaren manua: "Zoaz..." Bainan zendako? Bakarrik ene deiarri ihardesteko. Bainan norat?: "...Erakutsiko dautzutan lurralderat".

o o o

Jainkoak Abraham'i agindu zion:

"Herri haundi baten þuru jarriko zaitut; onetsiko zaitut, eta zure izena haundituko dut; eta zure izena onets-lelo izango da."

[Asiera, 12,2].

Ahraham abiatzen da, bere sor-herria utzirik. Abiatzen jakingabe xuxen norat doan. Ba-daki bakarrik Jainkoak bere zoaz inguratzen eta begiratzen duela. Ba-doa Jainkoak eman hitzean bermu. Denak utzirik, bizi berri batean sorturik, emeki-emeki barnago sartzeko. Fedeak argiturik munduko illunpeen erdian. Gibelerat so egin gabe: "goldeari eskuz lotu eta gibelerat beha dagona ezta on Jainkoaren erresumakotzat" [Luk, 9,62]. Eta zoan, aintzina, goiz guzietz hartuz gauaz Jainkoak zabaldu bide berrian, Sara bere emaztearekin, Lot bere illobarekin, bere sehiakin ta bere artalde guziekin. Kanaan'eko eskualdean kokatu ziren.

o o o

Jainkoa dena dei eta manu ote dea bakarrik? Ez ote du bere hitza atxikitzen? Thai. gabe harat-hunat beharko ote du ibilli Abraham'ek Kanaan'eko leihorrean barna? Egiptoko eremuetan gaindi? Eta berriz Kanaan'en gelditzeko? Noiz duke gozaturen ahalko iruzkiaren beroa?

Jainkoak Abraham'i seme bat agindu zion, Sodoma eta Gomorra suntsituak izan aintzin. Abraham'ek bere emaztea "ezagutu" zuen lehen aldikotz bezala amodio berri batean. Eta Sara, bere emazteak, haur bat sortu zion bere zahartasunean; deitu zuten ISAAC.

Sortze hunek erakusterat emaiten dauku Salbamenduaren Edestia dena dohain dela, dena gra-

zia. Jainkoak ez du ahanzten eman hitza. Jainkoak atxikitzen ditu bere agintzak. Jainkoa Sara'z "oroitzen" da, bestaldi batez Rebeka eta Raxel'etaz oroituko den bezala [Asi., 25, 21-23; 30, 22], Anne'taz [I Sam., 1, 19] eta Elisabet'ez [Luk., 1, 25] eginen den bezala. Isaak mirakuiluaren umea! Jainko Bakarraren baitan Abraham'ek bere fedea ereberitu zuen, ikustearekin Jainkoaren hitza bete; ikusiz bere leiñua segurtatua; ikusiz Jainkoa leial dagola bere agintzan.

o o o

Bainan, Jainkoak noz du sekulan utzi pausatzerat? Alta, gure iduriko segurik, abraham'ek ba-zuken aski arrazoin istant bat hatsaren hartze-ko. Eta ez. Jainkoarekin lanean hasiz geroz, ezta pausatzerik. Fedeak aintzina bultatzen gaitu. Jainkoak berak nahi gaitu Berari josten gaituen fede azkar batean beti barnago landatu. Horra zertako, Jainkoak nahi izan zuen Abraham bere hautetsiaren fedea frogatu. Huna zer manatu zion:

"Isaak, zure seme bakar eta maitea hartu eta, zoaz Moria alderat; eta, han, erranen dautzutan mendi baten gainean, sakrifikatuko dautazu!"

[Asi., 22, 2].

Zer dio bada Jainkoak galdegiten? Abraham'ek eman diozka bere sor-herria, zeraman bere bizi baketsua, bere ahaide eta adixkideak! Hoinbeste luzaz ibili da, harat-hunat, ezagutzen etzituen leihorretan gaindi! Eta orai, bere seme maitea diola Jainkoak beretzat eskatzen? Bainan? Jainkoak berak agindu eta eman seme bakarra, bere leinuaren segurtamena?

Abraham defedunak ba-daki Jainkoak ba-dituela bere xede gordeak: emeki-emeki ditu salatzen ihardesten dionari. Abraham zintzoak ba-daki Jainkoak ba-dituela bere gisako xendera bihurriak: han gaindi ditu bidatzen bere hautetsiak. Abraham'ek ba-du fede sendo bat.

Goiz-goizetik jeiki zen eta bideari lotu Isaak bere seme eta bi xerbitxariekin. Berekin,

ondotik, asto bat egurrez kargatua, eta eskuetan zeramantzala suarekilako untzia eta ezpata. Hiru egunez, ixil-ixila, aita-semek egin zuten bide Moria'ko mendiraino. Xerbitxariak mendiaren zolan utzirik, abiatu ziren mendian gora. Isaak'ek bere aitari galde hau egin zion: "Ene Aita..., sua eta egurra ba-ditugu, bainan bildots sakrifikatu beharra nun dago?" Abraham'ek bere semeari ihardetsi zion: "Haurra, hura Jainkoak hautatuko dik!..." Eta biak beti aintzina zoatzen bide luzean peti-gorra.

Mendiaren kaskoan Abraham'ek aldare bat eraiki zuen eta gainean egurra metaturik, Isaak estekatu, ezpata ukaldi batez hiltzeko. Orduan, besoa altxatu zueneko, Jainkoaren aingeruak oihu egin zion zerutik: "Abraham, Abraham... ez minik egin haur horri. Jainkoak ba-daki oraf Haren bel-durra ba-zuzula, Harren nahiari obeditzeko zure semea hil nahi izan duzunaz geroz!" Abraham'ek alde guzietarat so egin zuen eta bere gibelean ahari bat ikusi, sasi bati adarretarik lotua. Hartu zuen, eta, bere semearen orde Jainkoari sakrifiziotzat eskeini.

Jainkoaren aingeruak Abraham'i erran zion:

"Zure seme bakarra hola eskaini dautazunaz, benedikatuko zaitut:
Zure leinua emendatuko dut zeruko izarrak bezala, itsas-bazterreko hare pikorrak bezala, eta lurreko gizaki guziak benedikatuak izanen dira zure ganik mundurat etorriko dena baitan!"

[Asi., 22, 1-24].

" ABRAHAM..." Horra Jainkoaren deia!
"JALGI ZAITE... ZOAZ..." Horra Jainkoaren manua. Horra fedearen zorroztasuna. Jalgi zure baitarik eta zure baitan estekan atxikitzen zaituzten guzietarik: Zure lurraldetik, zure etxondotik, zure adixkideen ingurumenetik. Jalgi... Jainkoak eskaintzen dautzun erresuman sartzeko. Uono barnago dani jalgi: zure arranguretarik, zure ideietarik,

funtsean zure gisa bizitzeko menetarik. Jalgi... deitzen zaituen Jainkoaren alde itzultzeko: Haren arranguretan sartzeko, Haren ideien hartzeko, Haren salbamenduko xede haundiaren ezagutzeko eta lehen obren hasteko. Nola beitzen Abraham gizon zuzena, Jainkoak zuen hautetsi. Eta Abraham'ek Jainkoaren deia entzun du eta ulertu Haren elea. Munduan hastapenean, gure lehen burasoek aditu zuten Jaunkoaren mintzoa baina Haren elea ez ulertu: gogo-bihotzak zituzten lurrari eta berenari soberaxko josiak. Eta orduan... ez ditake Jainkoa ikus eta adi! Eta orduan... gertatu beharra gertatu: berek asmatu mundu koxkor hetxi batean botatu izan dute gizakente osoa. Abraham'ek fededunak ihardetsi izan du Jainkoari eta Jainkoak asmatu mundu berri batean abiarazi gizakente osoa.

ZOAZ... ABRAHAM... BERRI ONAREN JABE.

Zoaz munduko bideetan gizakente osoari helaraziz Berri Onaren mezua: Jainkoa bakarra giza lurreraino ukurtu izan dela eta hasi bere eskuez mundu berri baten orhatzen eta moldatzen. "...Eta lurreko gizaki guziak benedikatuak izanen dira zure ganik mundurat etorriko dena baitan!" Abraham, zuen Aitaren uratsean... zoazte: ISAAC, JAKOBE eta beste gizon hautetsiak... Zoazte eta zuen Aitaren FEDEAN egon bermu: sor dadien "ISRAEL" Jainkoaren gizakia.

Arnaud ERDOZAINCY-ETCHART
-Prantziskotarra-



AGERKUNDEA TA KRISTO

Ona emen, "beti antziñako ta beti berri" dan gertakizun bat: Agerkundera, Errebelazioa. Kondairaz, anartan gertatua; ondorio aberatsez eta eragitez berriz, beti gaurko dugu.

Bere izate sakon sakonean, ez dio aldiak, ez diote gizaldiak aldakuntzarik ezartzen. Berdin, bere sakonean arrigarri ta mirarizko dirau mendez mende. Bere argi-erraiñuak, garai ta unearen mugen gain edatzen dira. Ogeigarren gizaldikuok geroz biotzetan idatzia daramagu.

Gizonari, gizaldiak zear, beti neketsu gertatu zaio bere indar soillen bidez Jainkoaganaiño irixtea. Izan ere, izadi utsak ez du izaterik kondairan. Jainkoak, gizona sortzerakoan, izadigaiñetiko maillara jaso zuan. Orregaitik, gizona ez da bere baitan lasai ta osatua arkitzen, mailla au gabe danean.

Izadigaiñetiko zerak eta Agerkundeak, gizonaren bere-berenean, muin-muiñean dute zeregin. Onekin ez dugu esan nai, izadi gaiñetiko ori izadi soillari zor zaionik. Guk baiezten duguna da, gizona izadi gaiñetiko bizi egitera deitua izan baldin bada, goi-mailla au gabe ezin ditekela konpreni bere izakera.

Arrazoizko, buruzko ezagubideak oso zailak ditugu, ta Jainkoagana eramate ortan, bide erdian uzten gaitue sarritan. Egokera ontan gerala, ona emen nun datorkigun Jainko berbera -Jesukristogan- egi arrigarrienak guri agirian jartzera. Lenbizi, filosofiak ekiñal gogor-neketsuan jardun ondoren eskuratzen dizkigun egiak argitaratzen dizkigu. Jainkoa ba-dala, animaren ezilkortasuna, t.a.

Baiña ez da ori bakarrik. Agerkunde aurrez, Jainko "txit osoa,egin-egiña" ezagutu genezakean. Geroztik, Berak, itz egin digu ta, Jainko "txit maitakorra" ezagutzen digu. Filosofiek Jainkoaren "izadiak" gerala erakusten digu. Orain, Kristok itz egin digu ta "seme" egin gaitu Berak.

Agerkunde ta Jainkoazko misterioak izugarri laguntzen digu, gudan Jainkoaren maitasuna ta adiskidetasuna geitzen. Agerkunde gertakizunak berak, Jainkoak gudanako duan maitasun xamurra ondo agirian jartzen du. Ba era ortan, bere ixilgorde izkutuenak, guri lagun kuttunenei bezela erakutsi zizkigun: Beraka Sema bat ba-duala, Bera-gandik eta Semeagandik, Espiritu Santua dutela, t.a.

Benetan da nekeza, Jainkoa, Jaun eta Jabedalako, guztien gainetik maite izatea! Ondo xamurra, Kristo gurutzetua maitatzea!

Jesukristo izan genuan eta dugu, Agerkundearen ardats eta buru.

Guk sinisten dugu Jesus, Nazaretetkoa, "alako"erri baten bizi izan zana. Berak Jainko zala esan eta gero esan ori egiztatu zuana. Guk, Jesus, izan zan eta esan zuan guztian sinizten dugu.

Baiña, Jesus'ek izan al du gero izaterik? Eta izan bada berriz, ez ote du oker jokatu? Sinistu al dezaiokegu? Berari buruz esaten dana orrela ote da? Galdera aukeratu eta beste asko egin oi dira eten gabe.

Gizonaren edesti luzean barna ez da ezagutu gertakizun arrigarriagorik, Kristo ori izan zalakoa baizik. Kristo Jainko ta gizon. Gure mundu ontatik igaro zitzaigun Kristo, Bizitzari era ta jomuga berri batzuk ezarriaz, aldi berean Jainko ta gizon bizikera egiñaz, dotriña ezezagun bat irakatsiaz, pentsakera berri bat sortaraziaz. Kondairan inork ez bezelako aparteko nortasun lilluragarri bateaz. Kristo, aldi artan izan zadarik, bere persona ta eragiñaren dirdaiez gizaldi guztiak betetzen ditu.

Benetan mirarizko agertu zitzaigun Kristo, ta gizonaren kondaira osoa beste inork erabatago astindu. Orregaitik, ezinbestekoa zan bere ondorengo ogei gizaldietan, bururik argienak bere bizitza aztertzen jardutea. Jesus'en Bizitza asko idatziz dira; gizon aparteko aren irudi bikaiña eman

naiean geienak. Amaika ba-dira, ordea, alegin ontan uts egin dutenak. Batzuek, Jesus'en irudi parregarri bat besterik ez digute eman al izan. Beste batzuek, Jesus'ik sekula ez dala izan esatera iritxi dira. Gizaldi geienak izan dituzte ontan oker jokatu duten gizonak. Geienak, aurrez sakonki finkatuta zeuzkaten beren filosofizko ideiei amor ez ematearren ekin izan diote bide okerrari.

Agustin deunaren aurretik, Celso zalako bat agertu zitzaigun ta Ebanjelioetan irakurtzen duguna ez dala siñisgarri esan zigun berak. Ondoren, beste asko.

Protestanteen Eraberritzea etzan jeiki zuzen beintzat, Jesus'i buruz Kristaudi osoak zuan pentsakeraren kontra. Aldiz, bere alde zijoala ematen zuan, Agerkunde idatzia baizik ez baitzun onartzen. Ala ere, izatez protestanteak izan ziran Ebanjelioei lenbizikoz arantzarik zorrotzenak josi zizkietenak.

Voltaire ere, danataz jardun zan eta, orretaz ere itz egin zuan, oi zuan izkera gaiztoaz. Gerro urte gutxitan teoria ugari izan dugu, bata bestearen gainean. Baiña sustraira bagoaz, Iru jokabide saildu genitzazke gaur: kondaira-teoria, mistika-teoria, eta bial elkartzen dituana.

Lenbizikoak, Jesus izan zala digu ta gizon apartekoa, beste inor ez bezelakoa izan ere. Baiña gizon utsa, Jainko iñola ere ez. Batzuen iritziz iñoiz etzuan esan Berak Jainko zanik. Beste batzuek, osterá, Bera Jainko zala zionean engaiñatu egin zala diote.

Ebanjelioetan, ordea, Jesus istorikoa ta Jesus Jainkoa, erabat, gorputz eginaz bezela ta bata bestearekin osatzen dirala agertzen dira. Bata bestea bezin zihisgarri.

Zer egin dute Jesus gizon uts utzi nai izan dutenak? Oso gauza aixa: Ebanjelioan mirarizko ta izadigaiñetiko sumatzen dan zer guztia, Jesus'en ondorengo kristauak, errixeak eta ebanjelariak asmatua dala, gizon bat Jainko egiteko asmoz sortua dala-ta, besterik gabe, nai zutena baztertu ta kitto. Ta ortarako Ebanjelioetatik sail galanta zokoratu bear, ia dana mirarizko ta, Jesus Jainko Seme ta Jainko lez azaltzen baida maiz maiz.

Garbiketa bapua egin ondoren, Jesus aul, itxuragabe batekin gelditzen dira, edo obeto esan, Jesus-itzal arin bat gelditzen zaie eskuetan.

Baiña ontan ere ez dira iritzi bakarrekokak. Batzuek, aberatsago ta bikaiñago uzten dute Jesus ori. Aldiz, ba-dira Jesukristo ondo ezur-utsetan uzten duteenak ere: Galilear gazte ameslari bat izan zala, ta azkenez, eriotzera eraman zutela. Ez dakigu geiagorik.

Zer dala-ta, baztertzen dute, ordea, Ebanjeliotik izadigaiñetiko guztia? Len esan dugun bezela beurak sakonki xurgatu duten pentsakera materialistarekin konpondu eziña ikusten dutelako noski. Naiz eta lojika izpirik gabe ari bearra izan, beren bidetxigorrean aurrera egin bearrak eragiten ditu ortara.

Ikus zagun orain, mistika-teoria.

Beste ainbati, ordea, aurreko teoria ori oso auala ta zearo lojika gabea deritzaie. Burugabekeri aundia iruditu zaie, lenbizikoan Ebankelioan beren gogora egiten zuten banaketa eta garbiketa nai zutena artuaz eta komeni etzitzaiena utziaz. Bestalde, Jesus Ebanjelioan agertzen zaigun bezela Jainko ta gizon erabat, ez dute artu nai izan. Zer egin? Bide bakarra ikusten zuten eta arixe atxiki. Ausi esi guztiak eta dana ukatu.

Ontan oker bai, oso oker jokatu zuten, baiña besteak baiña askoz burutsuago eta lojikoago ere bai, dudarik gabe. Etzuten bide erdian ia utsetik zintzilik gelditu nai izan. Jesus ori inoiz etzala izan diote. Mito bat dala.

Itz batez, lenbizikoak, Jesus izatez gizon bat zala, eta gero bere jarraitzaileak Jainko izatera altxa zutela; auek, ordea, bestera; alegia, aspaldi artako gizonak Jainkoaganaino errexago iritxi naiez edo, Jainko oni gizon tankera eman ziotela, aragiz jantzi.

Kondaira-teoriaren aldekoak besteiei oztopo au jartzen diete: mito batek kristaudia sortzea eziñezko gauza da. Baiña auek era berean erantzuten diete: ta zuek damaiguzuten Jesus gizon uts, aul orrek, kristaudiari sorrera emateko naiko almen baduala uste al duzue?

Egiz, ez bata ta ez bestea ez dira gauza ain ondore ugari ta arrigarriak emateko. Zio ta ondorearen arteko berdintasunik ez dugu ikusten. Ala ere, lenen teoria lojika gabeago agiri bazaigu

onako au, egitik urrutiago dabillala esan bear. Izan ere, Jesus ori etzala izan esaterakotan, Alejandro Aundia, Anibal, Karlos Aundia ta beste ainbat ere etzirala izan esan bear. Ta era ontan berealaxe ezereztuko genuke istoria osoa.

Azkenez, Beren arteko batek aitortua dugu onako au ere; alegia, eurak batera eta bestera jo arren ez dutela Jesus'en problema au ondo argi ikusten, eta katolikuok argiaren jabe gerala ta benetan zorioneko.

Guk, Ebanjelioan bi gertakizun sail arkitzen ditugu: Gizonak egin ditzakenak eta Jainkoari bakarrik dagozkionak. Dana naasian eta banatu eziñezko batasun ederrean. Ebanjelariak guztia batera ematen digu, eta dagonean ontzat artzen dugu guk. Nazareteko Jesus, Berpiztuarekin alkartuaz; on egiñaz igarotzen dan Jesus, Lazaro piztu zuan Jesus'ekin. Maria ere, Jainkoaren Amarekin bat egiñaz. Yon deunaren Ebanjelioan agiri zaigu bikaiñen batasun lilluragarri au. Onetan, mirarizko, Jainkozko ta grazizko zer ugari bada, baiña guztia, kondairan, aragian, aldi batean kokatua.

Guk, Berak irabazi ta ematen digun graziari eskerrak, Jesukristo Jainko ta gizon sinisten dugu.

Osa'tar Eusebi
-Laterandarra-

SCHOPENHAUER

EDO

ZORIONIK-EZA

Jo dezagun jauregi bikain bateko semea zaitugula, ta zure aitak, gau batean, leio garaie-netik bere burua leize-zokoraiño bota duela, ta gutxi-bora-beera umezurtz zaitugula bein betiko. Ezbear au kaxkarra bailitz, beste okerrago bat duzu oraindik: amak etzaitu maite. Berak lan aski baitu burua apaindu ta liraintzen, ta eskuartean dituen txanponak gau-jolas ta antzeko billera "egokietan" alperrikaltzen. Ta okerrena dena,ba-duzu oraindik etsai gaiztoagorik: zeure odol ta jatorritik datorkizun izakera illun ta gorrotokorra. Geurera iritxiaz, ba, Arthur Schopenhauer'ek auk denak zituen berarekin.

Etxe aberatseko semea zen; baina dirua ta zoriona ez dira beti senide... Goiz batean, aita leiostat erori-edo zela-ta, illik aurkitu zuten, ta amak, berriz, diruduna ta apaiña izan arren, etzuen noski kaskoa patrikak ainbat betea.

1788'ko otsaillean jaio zitzaigun filosofilaria Dantzing urian. Aita judutarra ta negozio gizona. Aita-semeak ongi konpondu ziran beti, ta onek leialki maitatu zuen. Etxean etzuen bere barneak eskatzen zion pakerik topa, gurasoak ez baitziran elkarrekin ongi etortzen.

Aitaren eriotza ondoren, Weimar'era, amagana, jo zuen, ez ordea onekin mokokaren bat izan gabe. Emen ekin zion filosofia ikasteari; geroxeago, 1809'an gaude, Goettingen'era pasazan eta ondoren Berlin'a. Emen iru maixu famatu zeuzkan: Hegel (etzion entzun nai izan), Fichte ta Schleiermacher.

Bere filosofiaren oinarri dan "Die Welt als Wille und Vorstellung" 1819'an argitaratu zuen; baiña amestutako aintzarik etzen urreratu.

Hegel'en aurka ekiten dio 1820'an; baiña ez du nozki etsaiak ainbat indar, eta galdu egiten du burrukaldia. Berriz ere porrot egin digu gure filosofilariak. Parre ta iseka egiten diote Berlin'go Unibersidadean... Gizarteak baztertu duen onengantik entzun bearko dituzte bai asto beltxarenak Hegel ta bere lagunek! Edonork suma dezake nolako puntzunia gaiztoz ixkribatzen duen bere lumak... Berak ez du gizonik bear; maiteago du lagun bakar duen bere zakurra. "Norberaren gizarterako joera, adimen kaxkarraren parekoa da", ta "mundu ontan oinbeste gaitz ditugunarren, guziotan okerrena gizartea".

Ainbat bakar-ordu ezinjasanetan irrikatutako ohorea "Parerga und Paralipomena" liburuak eman zion. Amaikatxo izardiei zor zitzaien omena! Liburu au aztarnatuko dut batez ere lan ontan.

1860'ko agorrean il zan, bere aintza-gosea ozta-ozta aseta. Beraz, aurten ospatzen dugu bere eriotzaren leenbiziko urtebetetzea.

• • • • •

Schopenhauer'en ontologia, izan-jakiniza labur dezagun. Mundua naia da; mundua nai-izateak egin du. Nai, gose, irrika batek sortu du mundua. Nai au gabe, izate-borondate au munduan ez balego, ludiak ez luke izaterik, ezereza litzake bera.

Borondate-sortarazle au nun bizi da? Leenbizikoz, gizonagan. Borondatearen lenengo txokoa gure barruko barruenean dago; borondate unibersal au pilpilka astean, esnatzen da gure Borondate au. Borondate orokorra nai-izate utsa da: Bere izatea, esentzi dena, naia da. Besterik ez. Naiak, berriz, borondate utsa izanik, beti zerbait nai du, ta leenengo naia sujeto izatetik objetu,

kizun, izatera iristea da. Jatorrizko gose au asetzeko sortzen du gure gorputza. Gere gorputza da, beraz, leenbiziko objetua. Gorputz au, Borondate unibersalak egiña danez, bere irudira moldatu du; txikian, Borondate nagusi orren irudi bat da: Borondatearen leenen agerpena. Gure gorputzaren izatea ere naiezkoa da. Etxe bat arriz egin oi dugun bezelaxe, gure gorputza ere borondatez mamitua da. Axalean gelditu gabe errealdade onen ezurreraiño joan bagaitez, nai-izatea aurkituko dugu soilik. Gai onezaz osatu da gure gorputza.

Gorputza Borondate utsa da; onegatik, gorputzak ere derrior izan bear du gose bat. Beste Borondate nagusiaren leenengo gosea, Edozein borondateren estriñako ametsa, berriz, nai onen agerpen, errepresentaziño, izango dan kreatura, sorkari bat sortzea da. Guregan dugun objetibatze-gose, kizun-grina kanpora jaurtitzean, mundua jaio egin da. Lurraren erraietatik, ixil-mixilllean aziak lora edo zugaitz bat ematen duen lez, guk ere, izkutaturik daukagun ortatik, mundu osoa sortzen dugu.

Jakiña, gu munduan agertu aurretik ere zerbait ba-zen ludian; zerbait ori, ordea, etzen mandu objetibu, kizundun, au, Borondate utsa ta sujetibua baizik. Borondate nagusi onetatik jaio dira gaiñerako borondate txiki ta objetibu guziak: gu ta mundu osoa.

Kosmo dena, sustraian, nai ta gosea da. Eta mundu guzia Borondate bakarrezkoa izanik, nla ditugu oinbeste izaki koxkor? Emen etxe bat, or zugaitz bat, arutzago liburu bat... mundua zatiturik, bereizia, ta erabat banatua daukagu, ta ala ta guziz ere mundua izaki bakarra dela dio Schopenhauer'ek. Ludia, berez, bakarra da, dena Borondatez osatua da-ta; baiña onek ez du esan nai sorkari artean nolabaiteko zatiketarik ez dagoenik. Izaki asko egotea ez dator, ordea, munduaren esentzitik, esentziz denok bat baitire; fenomeno ori beste zerbaitek sortu du: Borondateak, kizuntzean, artu dituen mailla desberdiñetatik jaio da banatze ori. Kreaturen ataltzea ez da, ba, berezkoa, maillazkoa baizik.

Era askotan agertzen da Borondate unibersal au. Bizigabeetan, fisika ta kimikako lege-

GORPUTZ MISTIKOĀ

(PAUL'K EPESOTARRAI...)

Pailo Apostoluaren eskutitzak gogoeta mardul, bete ta ugariz josiak daude. Ba-da, ordea, gogoeta berezi bat Paulo'ren ezpainenetik burrundatsu ta uneoro dariona: "Kristo Salbatzaillea". Kristo'tzaz diardunean teolojiaren sakona arrapaladan iraultzen da bere eskutitzetan.

Epesotarrai egin-eskutitzean ere Kristo Salbatzaillea da teoloji-gintzaren oinarri bakarra. Bertan aipatzen duan ezkutukia -misterium- Kristo da bere Berreroste ta gizadiarekiko artu-eman oroekin. Zeatzago: Jesus, lurrera jetxiaz gizonen ezereza bere bizitzarekin osatzen... Edo Jesus, gizadiarekin batasun ertsienean kiribilduta: "Gorputz Mistikoa".

Gorputz Mistikoa ta e z k u t u k i a ez dira mailla berdiñekoak. Epesotarrai egindakoan, Gorputz Mistikoa adierazten du. Besteetan, berriz, Kristo osoa bere eginbear guztiakin. Dana dala, Gorputz Mistikoa "ezkutuki" da zifiez eta beste e z k u t u k i aundi orren lenen atal antzo bere mami-mamian gordeta dago.

E z k u t u k i aundiaren sakona argi berri batek biltzen du eskutitz ontan. Argi orren berokak eraginda egi jori, elduen bat damaigute be-

saiatu bear dugu, ez atsedean atzetik ibilli.

Bizitza ez da goza dezagun, berarekin jasan eta lenbaitlen bidertzean utz dezagun baiño. Gizonik zoriontsuena alik sufrimendu gutxien izan duena da. Mundua zerutxo bat dela uste dutenak egia oso urruti dute; gertuago dabiltz mundu au inpernu bat dela diotenak. Saia gaitezen, bada, sugarretatik iges egiteko aterpe bat billatzen. Oso zoriontsu izateko, biderik egokiena zorigaiztoko ez izaten alegintzea da. Esistentzia ez da benetan balio aundikoa, obe genuke ez balitz, eta, berari uko egitea da jakinduririk bikaina. Platon'ek diona: "Ez dago mundu ontan gure buru-austeen din dan giza-eginkizunik".

Zorionaren atzetik ibiltzea ez da zozokeri bat beßerik. Zorion positiburik ez dago munduan. Bai igeskorra zoriona! Zorion au idorotzearen, amaikatxo inosokeri asmatu ditu gizonak: gizarteko pesta, karta-joku... Artifizialki, gezur utsez, sartu nai dugu alaitasuna. Bai, dei egiten diogu jendeari; ba-datoz guztiak gezur-erromeri ontara; baiña bat palta da: alaitasuna... Eta bere billa etorriak giñan(!). Gezurra... gezurra darie pesta oieri; ez dugu, ordea, gere bururik engañatzen. Etiketa asko, komeri geiegi, ta guzion frutuak oiñaze edo gogaia.

Bakardadeak soillik, ez gizarteko txepelkeriak, eman dezaiguke zoriona. Zorionak libertadea dauka oiñarrizat eta askatasunik ez da bakardadean baiño. Gizonoi gizartean "puerco espín" edo oiei gertatzen zaiena jasotzen zaigu: Elkarren zoriona egin nairik, zenbat eta geiago ondortu eta estutu, neurri berean elkar samintzen dugu. Jokabide au, ordea, adimen gutxikoena da: nota bat bakarrik dute soinu oiek, eta jakiña, ezin atera doiñurik orrelako adimen-txistuari ta albokoarekin kartu bear; Adimen aundiko gizonak bestela egiten du: nota askoko txistu oso bat daukanez, bakarrik jo dezake doiñu osoa eta ez du besteren bearrik.

Zorionak lagun eta etsai asko ditu. Zoriona gugan, gure biotzean, dago ta bertan jaiotzen da, ez du beste iturbururik. Orregatik ez dago tenperamendu alaia bezin oiñarri egokirik gure zorion edo zoritxargabetasunarentzat, gere joera berezi ontatik jaio baititeke. Gure zorionera

iristeko, beste bide asko ere ba-dira. Leenbizi osasuna; aitatu dugun tenperamenduak ainbat inportzia baitu. Osasun gabe, aberatsa zoritxarreko da, ondasun guzietan gurena osasuna dugun ez-kéro, ta berarekin langillea bere onean dago beti.

Bigarren gauzen edo gertakarietikiko dugun eritzia. Eritzi au tenperamenduak ematen digu. Onen garrantzia ezagutzeko ez daukagu gizartean gertatzen dena begiratzea besterik: ez-bear baten aurrean, batek negar-zotinak izango ditu, ta besteak ez du parre besterik egingo. "Gauzek ez dute gizona kezkatzen, oiei ezartzen dizkien eritzi ta ikuserak baizik" (Epikteto). Tenperamendu alai ta errez batentzat bizitza alai izango da; erneagarrarentzako, berriz, ez du munduak irriparririk.

Zorion-billaketa onetan bi etsai bideratu dakizkiguke: oinazea ta asperkeria. Oinazea, gure indar ta aalmenak beartzean, gaineratzen zaigu. Etengabeko gudaldiak nekatu ta makurtu egiten du gure izakera; sentimena asarretu egiten dela esan genezake. Lan egin bearrak sortzen du oinazea.

Gogai aspergarria bestaldetik dator kigu. Bizitzako nekeetatik iges eginik, sentimena amostu egiten da. Egunean eguneko berdintasunak ito egiten du, eta bereala egote galgarri batek menderatzen gaitu. Bi arrisku auetatik iges egin bear dugu; baiña, gogoan euki, batengandik urruntzen geranean, besteagana urbiltzen ari gerana.

Bion, oinaze edo gogaiaren, arteko tarte berdintsuan jartzen geranean, iritxiko dugu zoritxargabetasunik iraunkorrena.

Onatx nola aizatu dezakegun oinazea. Bizitzako bearrei darien gaitza dugu au; baiña bear aukeratu ezereztu egin ditzazkegu, gelenok ez baitira benetakoak, sasi-bearrak baiño. Benetakoak bi auetara erakar genitzaizke: jantzia ta lapikoa. Aukeratu ditugu bear-bearrekoak, gaitzontzekoak gabe ere bizi gaitzezke. Ala ere, aberastasunak ba-du alderdi bikain bat: gizonengandik aska egin gaitzazkela, eta gere buruari jabeago biurtu. Aberastasunak, aspergarria uxatzeko dira bereziki ego-kiak.

Bizitz-gogaia alienatzeko, adimen zorrotz bat bear dugu, espiritu indartsu batek bakarrik eman baitezazkiguke asperkeritik iges egiteko

egalak. Bizitzako bearrak urrituta, oinperatzen dugu oiñazea; baiña samingabe egoteak aspertu egiten gaitu; ona atetik bialti dugun oiñazea lei-otik sartu. Gogaia itötzeko barne aberats bat bear dugu. Gaiñera, gure arimako ondasunengan tinkatzen dugun zoriona ez dezaiguke inork ken. "Kanpotik ez dezakegu gauza aundirik itxaron". "Eren buruekin naikoa dutenentzat da zoriona" (Aristotele).

Jakituria eta zoriona berdindu egiten dira. Jakituri gabeko zoriona ameskeria dugu. Buruarinak ez du inoiz zorionik izango; jakintsuak, berriz, beragan dauka zorion-iturria: bizitz-be-arrengandik askatu da, eta ez diteke asper, adimena, munduan aurki ditezken jostailu bikaiñe-nez betea daukalarik. Barnean dituen pentsamendu-ekin aski du. Bizitzan diren bear denak bereala ase ditzazke, adimenekoak baitire, eta or dauka berak aberastasun guztiak. "Gizonik adimentsuena da zorionekoen". "Kanpoko ondasunak, berriz, ur gazia bezela dira: zenbat eta geiago edan, ainbat aundiagoa egarria".

Schopenhauer'en eudemonologia antatik ondore au dator: aberats eta oso burutsu ez dena ez diteke izan zorioneko. Gure zorion-bizitzak, esan dugunez, bi etsai dauzka, oiñazea eta asperkeria. Gogaia au iltzeko, adimen aundi bat bear dugu; baiña adimena landu egin bear da; eta ontarako astia eta egokitasuna derriorrekoak dire; au, ordea, dirurik gabe ezin. Ba-daki Schopenhauer'ek txanponaren premia, eta onegatik diotsa aitari: Eskerrak, aita, ondasunak utzi dizkidazulako, auek gabe ez bainuen izango nere filosofia sortzerik, ezta onek kendu dizkidan zoritxar oiekin bizitzerik ere.

Zorigaiztoko gu, aberastasun eta filosofigabeak geranok!

Intxausti'tar Joseba, ofm.
-Arantzazu 'koa-

GORPUTZ MISTIKOĀ

(PAUL'K EPESOTARRAI...)

Pailo Apostoluaren eskutitzak gogoeta mardul, bete ta ugariz josiak daude. Ba-da, ordea, gogoeta berezi bat Paulo'ren ezpainenatik burrundatsu ta uneoro dariona: "Kristo Salbatzaillea". Kristo'tzaz diardunean teolojiaren sakona arrapaladan iraultzen da bere eskutitzetan.

Epesotarrai egin-eskutitzean ere Kristo Salbatzaillea da teoloji-gintzaren oinarri bakarra. Bertan aipatzen duan ezkutukia -misterium- Kristo da bere Berreroste ta gizadiarekiko artu-eman oroekin. Zeatzago: Jesus, lurrera jetxiaz gizonen ezereza bere bizitzarekin osatzen... Edo Jesus, gizadiarekin batasun ertsienean kiribilduta: "Gorputz Mistikoa".

Gorputz Mistikoa ta e z k u t u k i a ez dira mailla berdiñekoak. Epesotarrai egindakoan, Gorputz Mistikoa adierazten du. Besteetan, berriz, Kristo osoa bere eginbear guztiakin. Dana dala, Gorputz Mistikoa "ezkutuki" da zifñez eta beste e z k u t u k i aundi orren lenen atal antzo bere mami-mamian gordeta dago.

E z k u t u k i aundiaren sakona argi berri batek biltzen du eskutitz ontan. Argi orren beròak eraginda egi jori, elduen bat damaigute be-

re erraiak, Paulo'ren agintzapean: "GORPUTZ MISTIKOA".

OIÑARRIAK.

Paulo deunaren teoloji-gintzak oiñarri bakarra dauka. Arkaitza bezin trinkoa, zerrua bezin ziuerra, Jainkoa bezin aldakaitza: "Berberoslea".

Epesoterrai egindakoan ere Kristo Salbatzaillea jartzen du erakutsi nai duan misterio berriaren euskarritzat. Lenengo azalburu osoan "Kristo'tzaz ari da aspergaitzezko ekiñalean. Esan ere esan leike, bere zoroak darabilkilla bere jardunean, eskutitz xedearen ajolarik gabe.

Ez da sentipen zoratzaille baten ondoren utsa, nere iritiziz, lenengo atal au. Ez nintzake berritsu-légez-edo diardunik aitortzen ausartuko... Ba-du orrek bere giltza ta arrazoi betekoa.

Tajuzko etxea jaso nai duana ez da ondartzatza aldakorrera joaten. Arkaitz bizian jartzen ditu oiñarriak. Paulo Apostolua, jauregi eder bat jasotzekotan dabil Epesoterrai egin-eskutitzean: "GORPUTZ MISTIKOA". Zentzunez jokutzen da ba, Kalbario mendiko arkaitz sendoan oiñarritzean, Bearrezkoa zan misterio berriaren azalpenerako.

Ukaldi batez arkaitz biziraiño daramazki Paulo'k Epesotarren adimenak, azaldu gogo dan ezkutuki berria asmamen ariñean soilik tinkatzen dala uste ez dezaten: "In quo habemus redemptionem per sanguinem eius, remissionem peccatorum secundum divitias gratiae eius quae superabundavit in vobis" (Eph. 1, 7-8). eta bereala oiñarri ori dagokion etxegintza berdingabea aipatzen du: "Asmo au zan berriz, epea bete orduko, zeruan eta lurrean diranak oro Kristo'rengan erabat biltzea".

Odolak ez du lojika, bizitza/ ere ez... Paulo'ren teoloji-gintza, arnas, biziz, odol da. Ez dauka lojikaren mugarri, joskera ta aiko-maiko txikien ardura aundirik.

Oiñarriak jartzen bai, lojika itsuena darrai. Epesoterrai egiña ezaugarri... Baiña arkaitza jo orduko ezkutuki osoaren arpegiz-arpegi uzten gaitu: "Bera Eliz osoaren buru jarri du... Aren soina, berriz, Eliza da" (Eph. 1, 22-23).

Gorputz Mistikoa aitatu besterik ez dagi emen. Baiña Epesotarrak, etxe oiñarriaren arretarik gabe, teillatu dotorera begira geldituko diran bildurrez bailego, Kristo'ri lotzen dio berriro gogoeta ardatsa. Gure Berresketaren gorabera, auzi-mauzi, leenak eta ondorenak (Eph.2,1 t.a.). Aita Betikoaren erabakiai itsatsita bezela, zeatz asko dakarzki.

Esan dugunez, Gorputz Mistikoa "ezkutuki" da Paulo'rentzat, bakarrik aztertu arren. Misterio bai, baiña, beste misterio -Gizadiaren Berresketa- arrigarri orren itzalean babesten dana ta gorde bear dana. Ezkutuki aundiaren atal, ondore... Orregatik diardu ain aspergaitz zindokuntzari buruz.

° ° ° ° °

"Diranak oro Kristo'rengan biltzearen" ezaugarri antzo ere ba-dakusgu, Paulo'renean Gorputz Mistikoa.

Erabakia zegoan betidanik Gizadiaren zindokuntza... Aukeratua zegon betikotasunetik, zindokuntza bizibidearen ardatz izan bear zana. Betiraundean sortutako erabaki ori, aldiaren magalera jetxi orduko, Gorputz Mistikoa dager bere giltzarri antzo.

Izan ere Gizadia zan Kristo'rengan lenen bildubearrekoa. Gero gizonaren laguntzarako irazanak. Gorputz Mistikoan "gauza oroan Kristo'rengan biltzea", Kristo'ren bizitz-zati egina erakusten digu Paulo Apostoluak, gizadiari dagokio-

beintzat. Jatorrizko illunbe zitalean ziraun gizadia, "bidea, argia ta bizia" danarekin gorpuztua; Kristo, Salbatzaille ta Elizaren Buruari, grazi-lokarriz lotuta (Eph.2,5-6).

Gorputz Mistikoa ta "diran oroan Kristo'rengan biltzea", Kalbarioko ezkutuki Jainkozkoaren atal dira, Epesotarrak egin-eskutitzean. Golgota gaillurreko zugaitz Salbatzailleak eman dituan emaitz onenak. Edo naiago baduzu, "emaitz onena". Biak ere gauza bakarra izan baiditezke, Paulo'renean, naiz kolore batekoak ez eman. Alabaiña, naiz Gorputz Mistikoa ta "oroan Kristo'

rengan biltzea" arpegi banatik begiratutako gauza bakarra dirala uste, naiz bi misterio dirala eman, bata ta bestearen oiñarria, kalbarioko e z k u - t u k i aundia bear derrior.

GORPUTZ MISTIKOA.

Aita Jainkoaren erabakietan Kristo Berreroslea gurekin bat egina agertzen da (Eph.1,3; 1,5; 1,7). Kristo'gan irazan zitun diranak oro... Eta diran guztiak Kristo'gan bildu ditu (Eph.1.10).

Egin nagusi orren indarrez idatzia dago Epesotarren eskutitza. Gorputz Mistikoa azaltzean oso arira baizetorkion Paulo'ri. Eta lojikak ez eskatuarren, gogoeta luzatzaille orrek irabazten dizkio biotz-ezpaiñak (Eph.1,23).

Kristo' ren betegarri gera. Izaki ta batasun bakarra gera... Kristo ta gu ezin gaitzke bakoitza bere bidetik gaizkatu. Seme bakarra dauka Jainkoak eta ez du berea besterik onartzen... Ba-dakigu, ordea, gu ere Jainkoaren semetzakoak geranez (Eph.1,5-6), zeru-bidean gaudela. Au ala ere, zerutik jatxi zan Jainkoaren Seme bakarra beste inor ezin diteke zeruratu. Beraz, salbatzekotan, "Kristo" dan batasun ortan erdikide izanaz soillik salbatu gaitzke. Atzo "kristo" ta gaur "Kristo ta gu" edo "Gorputz Mistikoa" dan ortan bakarrik.

Ez du Jainkoak beste semerik onartzen, Paulo'ren iritziz. Orregatik Kristo'rengan bildu nai izan zitun diranak oro...

Poema -egintza- lilluragarri bat (Eph.2,10) da gure ta Kristo'ren arteko elkarte ertsia. Gogo Deunaren eskuetatik irtena. Grazi-arnasa du bizibide. Kristo'rengan bizitzea xede, "Gorputz Mistikoa" izen.

Gorputz Mistikoa giza-gorputzaren arauz antolatua dago. Ba-ditu bere buru ta soinkiak, aragizkoak ez izan arren. Gorputz Mistikoa, "gorputz" da benetan, Paulo'ren iritziz. Baiño gure bagiak ikusi dezaketenaren legeetatik landa dagona. Kristo du buru, Eliza soinki: "Bera Eliz osoaren buru jarri du. Aren soina, berriz ta dana alde orotara betetzen duanaren betegarri Eliza da (Eph.

1,22-23).

Elizaren neurriak ote orduan, Gorputz Mistikoarenak ere? Paulo Apostoluari itzetik el-tzen badiogu, elizarrak -ziutzoak- eta Kristo bakarrik ditezke Gorputz Mistiko. Amiot'ek zuzen-ki dionez ordéa: "Paulo'ren begirapen orokorrek ez dio lege neurririk jartzen Gorputz Mistikoari. Eph.1,2'garrenean Ejiiza bakarrik aitatu arren, Paulo'ren esanaia argi asko ikusi ditezke eskutitz barna."

Gorputz Mistikoak, Kristo'ren gurutzea ain neurrigabea dalarik, gizadi osoa jotzen du. Gaiñera, "Gauza oroen Kristo'rengan biltzea" (Eph. 1,10) bizitz-printza egiña darakusgu. Paulo'ren "recapitulatio" ori aiña zabal ere ba-da, ziurki, alde ontatik.

Bi burubide aurkitzen ditugu Paulo'renean Epesotarrak egin-eskutitzean: alkartasuna eta ba-tasuna.

ALKARTASUNA: Soinkiak Kristo'rekin bizi-lo-karriz lotuak daude. Baiña bakoitzaren izakera be-rezi ta berarizko tasunak gañdu gabe. Alkarte bat, baiña bakoitztasuna birrintzeke. "Emaztearen buru senarra dalako, Elizaren buru ere Kristo bezela" (Eph.5,23). Kristo'ren Gorputz Mistikoa ditezke.

BATASUNA: Kristo ta Eliza, Eliza ta Kristo batasun utsa dira, izaki bat, arnasaldi bat, gor-putz bat. "Onengatik illik geundenean ere bizira Kristo'rekin atera gaitu" (Eph.2,5). Kristo Misti-koa, Krisostomo deunaren aitores: "Christum pro Ecclesia posuit, corpus eius sic vocans". Agustin' ek berriz: "Totum hoc quod dixit, Christum appella-vit" (ML.36,232).

Burubide auek gidari ditugula, sartu gai-tezen Paulo'ren alor aberatsean Gorputz Mistikoa, audienetik bada ere, aztertzeke.

BI ALDERDI : burua, soinkiak.

B u r u a: Kristo ta Ejiizak osatzen dute Gorputz Mistikoa. Buru-soinki uen artu-emana da ezkutuki (Eph.4,11), ta poema (Eph.2,10) onen arri-garriena.

Bi aldetatik begiratu dezaioketu. Beetik gora edo goitik beera. Burutik zear edo soinkien bidez. Burutik zear begiratzekotan, Tomas deunak buruari izentatzen dizkion tasunki edo kera berarizkoak aitatzero beartuak gaude: a) aginte mailla, b) indar(bizitz) ixurtzea, d) izate-kidetasuna.

Paulo Apostoluak etzeukan teoloji osoa bere izen, bide gurutze, banaketa ta izki-mizki txikienakin emateko askorik. Baiña Goiargiaren itzalean sesio, bidexigor ta eztabaidaz jositako liburukoteetan baiño geiago ikasi zuan. Gare itzak erabilli ezarren, itzen esanaia betea erabilli zuan Gorputz Mistikotzaz jardutean. Tomas deunaren banaketa ere ba-dakarki. Zuzen gero ekarri ere!

Aginte-mailla: Amaikatsu aldiz aitatzen du Kristo'ren burutasuna, gure grazi-bizitza, buru orren arnas-txirbil dala aitortuz (Eph. 1, 22; 4, 15; 5, 23). Kristo'ren nagusitza gogotsuago onartu dezagun, agorgaitzezko gorasarrea da Paulo'ren izkera. Aita Betikoak Kristo'gan egin ditunak oro goratzen dizkie Epesotarra: "Aginte, alizate, indar ta nagusitza guzien gainean... Aren oinazpian dana menderatu du ta bere Eliz osoaren buru jarri du" (Eph. 1, 20-22).

Arnas-ixurtzea: Kristo'ri, Gorputz Mistikoaren buru dalarik, tokirik altsuena dagokio. Baiña, toki batean, altsuena izan arren, 'egote utsal ez dagokio inolaz ere.

Kristo buru da ta ez gorputz-joskeran, atal aipagarrena dalako bakarrik. Gorputz Mistikoaren zainetan dirakin odolaren sorburu ta soinkiak biziarazten ditun arnasaren iturri dalako ere bai.

Gaur egun gauza jakiña da, burua ez dala bizitz iturri, baizik sentimen joskera, zentzunen jokabide ta aalmen oroen gidari. Garai artan, burua jotzen zuten bizitz-iturritzat.

Orregatixe deitzen dio xuxen ere, Paulo Apostoluak Kristo'ri "buru". Gorputz Mistikoaren eginkizun oro Kristo'gandik dario: "Ogenegatik illik geundenean ere bizira Kristo'rekin atera gaitu" (Eph. 2, 5).

Kristo gabe, Gorputz Mistikoaren bizitza eriotz, arnasa ilzori, grazi-lokarriak amets, al-karte arrigarria illobi-kondar ta Gorputz Mistiko osoa asmakeri ausarta besterik elirake. Bein eta berriz dasaie Paulo'k Epesotarra, pekatuzko illunbetik Kristo'ren bitartez grazi-bideratuak gerala ta Kristo'rengan edaten dugunak bizi gaitula.

Izaki-kidetasuna: Soinkien bizitza burutik dario. Ez dago Gorputz Mistikoan buruarena beste bizitzarik.

Nolaz diteke, buru-soinkiak bizi bakarrekin bizitzea? Al ditekena ote, soinkiak Kristo Gizon ta Jainkorenetik xurgatzea?

Jainko soillik balitz ez. Gizon ere bada, ordea, ta az dauka eragozpenik Gorputz Mistikoaren buru izateko. Izate-kidetasuna buruaren bizitza noranai daramaken erreten da.


Areago: Paulo'ren aitorréz, izate-kidetasun orrek orain ez ezik, betikotasunean ere Kristo, Gizon ta Jainkoaren biziarekin bizitzeko diña egiten gaitu: "Kristo'rengan baitan sortuak baidakera... Ta Arekin berpiztu ta Jesukristo'rengan eserazi gaitu zeruan" (Eph.2,10,6).

(jarraitzeko)

Joxe-Austin
Urretxu'ko Pasiotarra.



KULTURĀ



IAKINTLA

ANTLE

IBSEN

-jarraipena-

I.- A S K A T A S U N A

Ibsen'en notiañak ori, Rousseau'ren urratsak jarraituz, bakarzale porrokatuak dira. Bakoitzak bere bizia ta kitto. Gizon ta emakume arri-garri oek bizitza dagiten mundu arro, ikaragarri ontan ez da senarrik, ez emazterik, ez aitarik, ez amarik; lagunik ere ez. Bakoitza "bera" da ta oni eusteko ez da legerik, ez serterrorik. Lur arrunt, aundi ontatik iges, itsas biotzean tinkatu diran ugarte bakar antzo.

Begira Nora bati. Begira Oswaldo margolariaren ama denaren Elena'ri. Nora'k, panpoxa berez, noiztenka ama xartmangarri, xoragarri baten biotza dager. Semetxoari maitekiro loixinka, ttattika; oekin jolasean, maipean lau ankan,ots,umeekin ume. Lilluragarri benetan! Ta? Odei bat, obeki esan, lainotsu bat sortuko da bere sukaldeko zeru urdinean, arnas biguin batez suntzi leikena. Ala ere au sobera da, senar da seme utzirik etxetik ospa egiteko. Betirako joan da eta ez du malako purpul bat ere ixuri. Askatasunari ereserki abeslari doa urrun... Ez au "berak" besteekin zer ikusirik. Bakoitzak "bere" bizitza bizi bear du!

Ta, Elena? Onek ere ba-ditu bein edo bein ama on baten errai xamurrak. Baiña, begira dezaiogun. Ez, ez da ama baten maitasuna berea. Ama-semeak odolak ez baiña edeia berdiñak, kidekoak lozzen ditu. Maixu ta ikasle dirudite, nai baduzu Grimstad'ko botikazalearen bi ikasle, besterik ez...

Entzun zeri dion beñola Ibsen'ek berak:
"Dana, dana mostu leike, dana eskeini leike gizonaren biotz-aldarean. Oro esan dut, baiña ez; ba-da gauza bat beti bizi, garbi, gure-gure gorde bear duguna: N!a, barne mundua, kaskaezurpean datzan izkutu ixil ori". Bere notiñek ondo ikasia dute ikasgai au. Jakin da egin.

"Erriaren arerioa"-tik artua dago onoko gertakizun au. Stockmann jakintsua, egillearen irudi bera, enparantzako erri xeari solas egin naiean asi da. Baizera, laister dira bere gaiñean. Pasada bero bat gizagajoari igortzi ondoren, bakar-bakarrik utzi dute. Jartzera etxera bidean; leioetako kristalak oro txetu dizkiote. Ez da konturatzen galtzak ere gaizki xamar erten dirala eraso alditik. Bere ideiaz mozkor doala, oztopo dagi bere emazte Kataliñekin:

Kat.- Ai ene, au gizonaren plantta! Ez dira ba otsoak zu botatzen zaituztenak...

Stoc.- Katalin maite, burutik al zaude? Ni bota? Oraintxe naiz erri guziko gizon aaltsuena ta...

Kat.- Zu?

Stoc.- Ni, bai ni; ta mundu guztian ni bezelakorik ez dala esango nuke...(Ixillago) Txit... ixoo... oraindaiño izkutu bat da. Asmaketa aundi baten jabe naiz...

Kat.- Beste bat?

Stoc.- Bai, bai, oso baiezkoa, positibua. Begirra: "Munduko gizon aaltsuena bakarrena arkitzen dana da".

Regina andereiñoagan ere irmo dakusgu askatasun onen kozepziño ausarta. Bere aitatzat pasatzen dan gizon lizun, sabelpexuri batek arazo dirugarri bat jartzen dio; dirugarri, baiña zikin, oso zikin. Alukeri ontatik ez du eskierki Jainkoaganako maitasun garbiak atzeratzen. "Aitarren" uztar biguiña astintzeko prest dago bere askatasunaren alde. "Neu, dasaio zirikatzailleri, neu bakar-bakarrik konponduko naiz nere gogora. Aita bazera, ez dit batere axolik" (Gau-irudiak", Lenengo Egit., len.ager.).

Oswaldo, berakin maitakeri narratsetan

naasturik ibilli dana, bere (Reginarena) anai da-
la jakin duenan, ez du lizunkeriaganako aierrak
etxetik aldeeginarazten. Ez, barnean gaztetasun
biziak pir-pir dirakio, ta Oswaldo berriz alboka
dabil, arpegi maxal, oso aul, iltzer antzo...

Gogorak dira benetan Ibsen'en notifiak
oro. Gorostiaren biguñaren ordezt arkaitz-biotza-
ren gordiña, gordiña ta gogorra. Makurgaitzak or-
ratio. Beti zut. Makurtzera bultzatzen badituzu,
beti, beti ezurraren kraskatako legorra. Makurtze-
ko eze egon bear...

Orain, askatasunaren urren, kemena eman
bear dut. Bi gaiak oso gertukoak dira. Askatasuna
lortuko bada kemena bear. Emen ere oso mutilla
dugu Ibsen.

II.- K E M E N A

Batzuk egillea, bere presunen gorputz-ani-
mako kemen da indarra ikusiaz, atleta bat zala
uste dute: makala bezain tantai, goi aldeko artza
zurien atzaparreakin. Ba, okerrean daude. Be.e gi-
zabetea aski kaxkar, eskasa zen, borobil xamarra
izan arre.

Bere lan guztia gaimenari, norberagan
usteari ereserki sutsu dira. Munduan gezurra ta
aizunkeria errege, ta alperriko zotin da begarrik
ixurtzeke, danakin autsiaz, egi-billaketa porro-
katuan jo ta ke diardu. Politika saian erria xu-
rikatuz zopa ederrenak jaten ari ziranei zigorra-
da beroa erantsi zien. Era berean iguingarri zi-
tzaizkion ez baiaren burutakoan biguinki etzanik,
bizitzako gora-beerak ain gibel aundiz zekuskiten
ainbat eta ainbat idazle ta filofilari laterdar.

; Onen notifiak beti egi-miñak bultzatzen
ditu. Nai baduzu gezur-jainkoak apurtzean aldare
santua oinpetuko dute, baiña bildurrak jota beso
lotu? Ez orixe. Brand mendiruntz itxuturik doanean
ezifiekoa, txakur ametsa darama buruan... eskierki
eriotza. Bela erraiñuaren atzetik dabillala bide-
nabar egiten zaion emakume gaixo, eroak jotakoaren
antzo... Alare txalotzeko gogoia ematen du or go-
runtz, jélatan irrixtaka, arnasestuka, aotik odo-
la dariola, bere egitekoa betetzearren doala iku-
siaz. Artzaia da (protestantea noski) ta azkeneko-

tan dagoan andre gaixo baten ordu larria gozatu bear du. Ero ez balitz, santu litzake...

Ibsen!en gizonek erromantiku-eriak joak arren- zainetan Normanditar itxas lapurren odol otza daramate. Sufrimentuan ondo eziak dira. Ez bere denporako olerkarien emakume-zotin da zinkurinetan... Entzun bere drama "Bakaldun naiak"-ean Erregeak eta Olerkariak ari duten alkar izketa:

Er.- ... Dasaidazu, Skalda, ainbeste arrotz erri ikusi dituzun orrek, ia bestearen semeak maite dituan amarik ikusi duzun.

Ol.- Ori semerik ez dutenei ez beste etzaie gertatzen, Errege.

Er.- Oieri bakarrik?

Ol.- Baitipait antzu diranei.

Er.- ... Orduan, oek biotz-biotzez maite dituzte bestearenak?

Ol.- Bai, sarritan.

Er.- Ta... Ez al da egi? Gertatu oi da: antzu baktek, berak ez dituala izanda, bekaizkeriz bestearenak erail dituala...

Ol.- Bai, noiztenka. Baiña ori ez da zuhurki jokatzeara...

Er.- Zuhurki?

Ol.- Zuhurki, bai, zuhurki. Ez, ori ez da zuhurki jokatzeara. Il dituzten semeen gurasoei sufrimentuaren eskar edo doala eskeintzen baidie.

Er.- Baiña, sufrimentua esker dala al deritzaizu?

Ol.- Bai, jaña.

Er.- Islandiar bi gizon dakuskit zugar. Lagunen artean jai alai bat gozaten ari zeranean, es-talki bat zabaltzen duzu zure gogai, oldozmenen gainean. Gero, adiskide batekin-edo bakardadean zaudenean, oso berezi, "raro" agertzen zera... zer dala-ta?

Ol.- Jauna, ibaiean igeri egin nai duzunean, jantziak aldatzean eleizara dijoaztenen bide ondean egiten al duzu egitekoa? Izkutuan, ezta?

Er.- Jakia, gizon.

Ol.- Ederki... Ba, nik ere ba-dut barne-lotsa, animako gorria, NIK BAKARRIK dakidana. Ona zergatik ez naizen danen aurrean erantzten.

.....

Er.- Nolaz iritxi zera olerkarira? Nork erakutsi

- dizu olerki-erti ori?
- Ol.- Olerkia ez da ikasten den gauza, jauna.
- Er.- Olerkia ez dala ikasten? Ba, nola egin duzu orduan? Zein zaitut, olerkari?
- Ol.- Ni nauzu. Miñaren doaiaz jantzi-egintza egin naitzen auxe... Ai miñaren doaia!
- Er.- Bearrezkoa da orduan olerkariarentzat miñaren doai ori?
- Ol.- Bai, neretzat beinipein bear-bearrezkoa izan zen".

Oldozmen sakonez gitsuturiko zoraldiak, ideia batetik bestera ziplo doaztenak: au duzu Ibsen'en alkar-izketaren tankera berezia. Bere notiñak gaberdian ametsetan jeikiak dirudite. Ez duzu onelako zerbait ikusi goiko errenkada oietan?

III.- M A I T A S U N A

Ta zer esan bere maitasun-teoriatzaz? Maitasuna... Frantzia'ko erromantikueta aulkari griñatsu, maitakeri zanak, bere antzerkian bere aldiko indar ta sua du. Onatx egillearen alde onenetako bat.

Alfredo de Musset, burrukarako odolge, ume loixintzale, ergel, amazorroaren antzo kikiltzen danean; emakume ederren esku lizun, txurietan burua murgil ames txoro dagianean, altxatzen da Ibsen lokarri guztiak etenaz, bere bi ukabil bortitzekin, su ta gar dariola, lurra ta zerua austu bearrean... Olerkiak, gizon eginkorra bera-gan itto bearrean, bere egitea goratzen da bizkortzen dituan ego ta akuillu eman dizkio.

Maitasunaren gai ernegarri onek zirikal-di gogorrik eman dio. Bere iritzia? Onatx itz bitan: egian sendotu gabeko maitasuna, irrixta-kor, aldakor da. Ta lotu ondoren gezurra azaltzen bada, lokarri ori ez da bidezkoa, lenbaitlen eten egin bear da. Eginbearra, tradizioa, gizartea? Utikan!!! Gai ontan ez dago Ibsen'entzat ez giza-tiar, ez jainkotiar legerik. Autsi egin bear da nai ala ez.

"Maitasun-antzerkian" damaigu bizi-bizi gai suspergarri onen aragi gorri-gorria. Maitasun-erne berria ilusio, ames da. Maitariak lenengo

ordu gozoetan bizitzaren errealtateaz azturik, lillura munduan bizi dira. Baiña lora pinpirin au belaxe belaskatzen da ta pirtxiltzen. Ba-datoz eguneroko ardurak, aginbearrak. Orain kontuak. Asierako olerki ura ospintzen asi da. Bakan, oso bakan dira bizitzaren aldapa-ezurrean alkarri-eu-tsiaz, ilusio ura galdutzeke, egun zoragarri artan arkitu zuren aberastasun, maitasun-pitxi eder ura garbi, xoil gordetzen dutenak. Geientsuenak(?) ez dute maitasun aren oroimenik ere; alare etxe bakarrean bizi dira, maiean ondoan exeritzen dira, lotarakoan biek maindira berdiñak dituzte. Mundua- ren ustez, oso zoriontsu: "a ze bikotea... Bata bestearentzat egiñak dirala dirudi". Ori da: "di- rudi"... Galde bestela berai. Uztarri gogor; la- tzari derriorez lotuak daudela esango duzute. Bien artean egin duten uztarria alegia...

Falk'ek -ideia berri oen zabaltzailleak- maitasunaren kilia nabari du berriro. Maitale guztien bidea jarraitzekotan dago: ezkondu. Baiña, ez, Svanhilda'k, bere gaztaroko ta oraingo loreak ez du olakorik nai:

Falk.- Svandilda, etzaitzez ain gogor izan... Nai- ko denbora iraun dut biotza ixillean. Lotu gaitezen!

Svan.- Baiña, ze, zerorren aurka asi al zera? Edota lengo ideiak lurrera bota dituzu? Ez nuen uste ain arin zifanik...

Falk.- Arin... Ez, ez, maitasunaren auleria... Zugatik da!

Svan.- Nigatik... Barkaidazu, baiña aldendu gai- tezen betirako. Urrundik, urrundik amestuko dugu alkar... Maitasuna oiturakin, alkartasu- nean, errealtate-bizian, zikindu, otzikatu egiten da. Ez al dugu ba, egin maite nai ba- dugu, biotzak urrun bizi bear? Gazte denboran, maitasuna gorri-gorri genduenean, alderatu ez giñalako, begiratu nora iritxi geran. Ez, ez gera alkartuko. Utz nazazu pakean. Beti, beti alkar maiteko dugu, oso alkar, baiña urrundik, oso urrun... dik... Agur!

.....

Griña, ole, naikeria duzu Moises berri

onen Oletan darakurgun legea. Eginbearrak grifa noizbein garaitzen duela gertatu ote? Ba! Grifa ia baita ta eginbearraren katamaloak heste gauza aunitz gordetzen...

"Itxasoko Andereinoak", Frimann datorkio-
nean, ez du bere senarra den Wangel utziko. Alper-
-alperrik gogoratuko dizkio onek misterio izkutuan
gazte denboran egiñiko alkarren arteko maitasun-a-
ginduak, itxasora bota zituzten eraztun alien bero-
a... Alper-alperrik! Onain Wangel'ena da ta ezin
xoratu zuanarekin joan. Zerk damaion indar ori?
Apika egin bearrak, Wangel'engako maitasun zin-
tzoak, alabeenganakoak? Ez eta ez. Frimann'ek be-
re gorbata xurian pitxi urdin bat ezarriarik dara-
makian gizon arrotz arek ia sorginkeri guztia gal-
du du beretzat. Gaiñera bildur ematen dio ta atxe-
ko sutondoa ain da goxoa...

Bere antzerkian ez dugu lagun arrastorik.
Nolabada egilleak berak etzuen bat bakarrik izan
da? Bassanio ta Andoni Shakeaspeare'an, David eta
Jonatas Biblian, Niso ta Eurialo Eneidan, beti
zâizkigu iru bikote illezkor. Alderantziz, Ibsen'
ek etzuan sekula miazkatu ere laguntasunaren ezti
gozorik. Bere arrokeriari, barne legorrari; bizitz
sustraietaz etzitzaien alakorik zillegi. Björnson'
berari, bere lagun izateko eskubide aundienakoa
izan arren, onela ari zaio: -"Eskutitz bat egiten
jartzean, besterik gabe, ezurrikara sartzen dit"...

Apika, Björnson'en ondoren, Jorge Brandes'
ek aña bere laguntza ta konfiantza merezi zuenik
etzan izango, ta begira zer dasaion: "Almen guz-
tiaz bere bizi-bideari lotu zaion gizon batentzat
lagunez inguratzea geiegi deritzait, lujo aundi-
txoa. Lagun izatearen naskagarriena ez da alien
alde eginbearra, aiengatik egin ez bear dana bai-
zik... Ni ere ortik igaroa naiz urteak zear(!?)
arik eta nere personalitatea lortu dedam arte".

Nik ez dut "Rosmerholm"-en azkena baiña
gertakari tamalgarrigorik ikusi. Rosmer da Rebeka
pake-pakean bizi dira alkartasunik beroenean. E-
txuraz bikote zoriontsua. Baiña orra or zaldi zu-
riak gabaren beltzean... Joana bien artean zutitu
da berriro. Zaldi zuriek gertaturiko zerbeit illun
gogoratu berriro, aaztuta zeudenean... Rebeka'k

agian biotza geiegi zabalduz, izkututxo bat agertu dio: bere jomuga lortzearren erabilli zituen gezur, amarru, sabel-zurikeri guziak, danak argi ta garbi. Geiegi, geiegi esan. Egi billuzi, gordiñegi onek pake betea urratu du. Rosmer'ek ia ez du bere emazteagan siñismenik; maitasunaren beroa erabat otzikatu zaio. "Nik ez dut zugan siñismenik, esango dio. Zuk ez didazu siñisten... Beraz, gure biziera erokeria da". Ta alkarri bezoz loturik, ibai gaindiko zubira doaz gaingoitik zurrunbilloratzekotan. Alaxe egin ere!

Pesimismu garratza da bere antzerki-landan oro pozoitzen duen belar gaizto, itzalkorra. Drama askoen azkenei, orain ikusi dugunari bezela, anima nekatu, aunatuaren kutsu beltz, trixtagarria darie. Xede zail bat lortu naiean bizitz oso alperrik erre duanaren porrota penagarria. ZOriona bearraren kea, utsa...

IV.- I Z K U T U A

Berarekingo ain esker gabe izan zan aberria bizi-bizi mamitu du Ibsen'ek bere lan guztian. Noruega'ko lurraldeak, illun, uzkur, goibel; erpin zuriak ipar argidiriz xoratil, dana dakusgu bere amets-irudi bildurgarrietan.

Arrizko gizandi dira mendi oiek, bertakoek dioten bezela. Erraldoi, gizandi dira dramalari aundiaren irudi notiñak ere; lur laifotsukoak, gaberdiko eguzkitan bustiak, Itali ta Greziko lurralde epel da loretsuen miña barne-barnean izkut daramaten gizandiak alegia. Euren itzen badeute alako otzikara izkutu bat, biotzaren dardar bailiran...

Bere antzerkiaren edertasuna urrunaren edertasuna da. Entzun zer dasan berak sorturiko emakume nabarmen aietako batek: "Edertasuna... gauza xoragarri bat urrun, oso urrun..."

Zeiñek eman digu Ibsen'ek baiño obekiago izkutuaren, ez-ezagunaren olerki arrigarri ori? Ia geienetan eginkizuna itxas ertzean dugu. Sarrimintzaideek solas ez baiña oi, aldarri egin bear dute itxas olatuen orrua dala-ta. Ba-dira ikaragarritzko ixillak, aize garraxiak, ittotzen

ari diranen aiene eta zinkuriñez naastuan. Ba-dira ixilgune gozoak, urrutira arraunka dijoaztenen mariñel kanta ernegarri, trixteez urratuak.

Izkutua, mixterioa maite du Ellidá'k, "Itxas andereiñoak" ere. Len ikusia dugu. Frimann izan zanetik urte asko ta asko igaro dira. Alare bere irudimen gaixoak bere bizitzako zeruan zapelaitz antzo igaro zen itxas-gizonaren irudia dakarkio. Berak daitor: "Urteak dira ta oraindik xoraturik nakar... Zorabio au itxasoaren antzo da: marmario goxoz beraganatzen nau gero orru beltzez ikaratzeko".

A Z K E N - S O L A S


"Solnes etxagillea"-n eman digu bere azken porroka. Solnes'en zorigaiztoa bere-berea da. Eleizak jasotzearekin erria uztarpetu besterik ez duela egiten uste du ta etxe jasotzeari eman dio. Naiz eleizak, naiz bizikekuak jaso, erria beti zoritxarrean datza. Itxaropen-ordu argi baten gaztediari bere ametsen betekizuna agindu zionak, etsi du azkenik. Solnes'ek ez du ia beragan itxaropenik. Goiz alai batean Hilda, Gaztedi guztiaren izenean bialduriko neskatx gazte, panpoxa, ixil-ixillik lantegira sartuko zaio. Solnes goibel, burua makur dago. Hildaren itz goxo, sutsuak berpiztu dio animako argizagi itzalia. Asi da berriz lanean len baiño adoretuago. Hilda^a rentzat, Gaztediarentzat, dorre arro, luze, burgoi bat jaso du, maitasun kabi. Hilda'k beragan siñistuko badu, gaillurreraiño igoa ikusi nai duala dasaio. Solnes bildur da zorabioak joko dunentz, baiña ggite onekin gaztediari emanen dion sorio-^anean ametsetan gora ta gora doa... Ja gaillurra jo du, garaille dala dirudi... baiña, ez, zorabioa, ainbeste bildur dion zorabioa... Zarata, garraxi ikaragarriak, danbatakoea ta... luranean datza, arri gogorrean sabela agirian, tertus alegia. Hilda'k, ezpailhetan ironi garratza duela, auxe dio parrez: "Erpiña jo du ta aldean solñu otsa dantzut..."

Ibsen apostolua, bidalia, Solnes'ekin il zan bein betirako. Ibsen oler^aKaria Hilda'kin goietan

abeslari... Urteak joan, urteak etorri, bere kalpar urdin, naasi ura Bibliako patriarka baten antzekoa bihurtzen ari zaio. Burruka ta guda-oiua besterik etzuten ezpain aiek, "Andersen'en ipuitxoak dariola dagoan aitonarenak bezin ezti, gozo dira.

Ibsen'ek ba-zuen ames guri bat: Egiaz, "bere egiaz", bizitzaren gezurrean argige, aztaunka zebiltzan gizagajo guztiak mundu dizdiratsu, zoriontsu batean sartu nai erregarria. Bere itzak izeak jan zituan. Gizonak bapo bizi ziran Sator-zuloetan; ez, etzuten argi egarririk. Ta ixilllean bere porrota derrior ausnartuz, eriotzaren zai dago... Etorri ere, etorriko zaio 1906'an. Eskandinavia'k olerkari onena galdu du. Munduak, berriz, antzerkigille baliotsu, jatorrenetakoa.

Olaberria'tar Ildefontxo, ofm.
-Erri-Berri'koa-



ADIMEN

BEARTZEA

"En raison de la signification attaché a votre prix par la société de la quelle je vis, je dois renoncer a la recompense immeritée que m'a été accordée. Ne prenez pas en offense mon refusse volontaire". Zer zala ta Nobel saria baztertu, zein arrazoi zuen Boris Pasternak'ek? Ez ote zuen nai saria? Ez al zen poztu lenbizikoz? Ala ere, "Mon refusse volontaire".

Bai eder askatasuna... Bakana den guztia deritzaioгу eder, ugaria ta egunerokoaren ondoan. Zer esanik ez, berriz, gizadi errukarri ontan askatasuna egunero dugula... oinperatua, loitua ta erdeifiatua.

Askatasun falta onen agerkai nabariena,

koaziñoa dugu; alegia, gizonari esateko ta irakas-
teko zerhait duenari esan ta irakats dezan galeraz-
tea, debekatzea. Gizon lotu onek zer egin bear du,
zein joera dagokio egoera negargarri ontan?

Zoritxarrez koaziñoa ez da laterri totali-
tarioena bakarrik. Aske esaten ditugun erri asko-
tan ere ba-da. Teknika-liferentzia da guzia. Lee-
nengoetan kolpe batean eta gogor egiten dute; xee-
ago, polikiago ta emekiago bigarrenak. Amerika'ko
"Human engineering" ez da beartzea ta koaziñoa bes-
terik. Koaziñoa edonun: irabazbide ta lasai bizitze-
ko modu oroen jabe diranak dauden tokian iraun de-
zaten, "fuerte"ak, oi danez esateko, bere ortan
jarrai dezaten. Goxo, ezti, bi gun: nai duzun dena,
baiña Errusi'koak bezin koaziñoa. Lepo egin, edo
errita gogor bat, berdin-berdin dira koaziño diran
aldetik. Bata, bestea bezin koaziño: ez gutxiago
ez geiago.

Beartze au edonoren gain amil diteke. Emen
langilleak eta abar utzarik, adimenzalea, intelek-
tualala, jakintsua begiratu nai dut. Orain artean
esanarekin aski da ia, jokabide asko -koaziño ain-
bat- izan litezkeia ikusteko.

1937'an Karl Jaspers'ek bere Berlin'go
irakas-alkia utzi egin bear izan zuan. Hitler'ek
zinez, "bere politikatzazko ideia ezezagun eta
filosofia interesgabeagaitik". Baiña Jaspers'ek,
eta beste ifork ere ez, etzion siñistu. Arrazoi
askoz arruntagoa zan berea: emazte judutarra. Jas-
pers'ek, ordea, ttonttoki, iñusenteki jokatzera era-

baki zuen. "Ta azkenean, besterik ezinda, gezurra bota: agintaritza eskuratu duten abereak abere bezela begiratuak izan bear dute." Tajuz jokatu zuen Jaspers'ek?

Lenengo, zer egin diteken ikusi bear da. Gobernu gogor batean bekoki ematea lan alperra eta eroa da. Kondairan ezaguna da, ondoegi, gizarteko minoria batu ta indartuak, agintez jabetu diranean, alguztidun dirala, ez ditezkela inolaz garaitu. Aurrerapenak eta maliziak koakziño era asko asmatu dizkigu. Leengo jaikierak ez dute balio gaur. Tamalez, gogoak ezin du azpiratu ez para. Labanak, aragia ezezik gogoa ere txikitu egin dezake. Prensa, erradio, telebisio, bear ditugu, eta oietan edaten duguna pozoitua badator, nola iraungo dugu jator? Orain, bereala edo geroago, baiña noizbait beztuak zango gera, pozoituak. Zer dezakegu jendearen ideologia bera orrela kontrolatua ta norbere naitara erabililia denean? Ezer ez. Errexegia da teoriar onela ikustea, baina egi-tekotan beste bidetik jardutea. Ba-zekien Ovidio'k.

Jarkiera bat ixiltzea da, etsitzea: Jaspers'ena. Berriak aizea bezela edatzen dira errietan, erri kontrolatuetan batez ere, eta jakintsu bati egiñiko beartzea, areago jakintsu ori ezaguna bada, askori ideki dezaizkieke begiak. Estatu totalitariu bati egin dakfoken oposiziñoak ez du ondorenik. Nekeak, berez, onik balekarke, gogorki zanpatuak izango dira lan ta langilleak. Arriskurik ez bada, jare utziko dute -txoria ez da lotuta egoten kaiolan ere, lokarriz bederen-. Oposi-

ziño onek, ordea, ez du ezer egiten gizartearen gaitz eta eritasunen sendatzeko. Aitzitik, orrekin diktadoreen konzientzian zomorroa, barne itzaren orrua, ixillarazten du. Gainera erriari iruzur egiteko bideak garbitzen; ba-dakite agintariek lan ortan nola jokatu bear den-eta. Aldiak eta erriaren egoerak ori eskatzen duela, alegia askatasun-eza, esan eta kitto. Komunismuaren aitzakiak gaur dena xuritzen du...

Bego garbi: jokaera au ez da zilllegi, besterik eroso denean. Kritika itxuarekin ez da ezer lortzen. Edo bestela pentsatzen duzu? Egunero gertatzen denak egiztatzen dit esan dudana.

Askok alare, uste dute ez ditekela ameti jokabide au zilllegizat, ez aurreko egoera ortan ez inoiz ere. Gaur gisartak duen eran intelektuolari eska omen lekiok egia ozen aldarrikatzea. Orrek, bizitza galduaraziko badio ere. Bai ote? Bear ote du, bear, bizitza galdu? zer esanik ez beintzat, ori legikena umant litzakela, gizon oso bat. Dena dela, nai denean buruauste denak dute askapen.

Gorriak eta beltzak ikusiak dugu azken urte auetan Cuba gaixoa. Batista'k, -lendakari sui generis, baiña diktadore amorratua- erriaren bizitza guztia bere atzaparretan zeukan. Askatasuna etzen inundik ageri. Batez ere idaztletan, egunerokoetan, dena ondo zuzendua zegoen, gobernuari gaitzik egin etzekion. Gutxik jokatu zuten bear bear bezela, baiña auetatik aldizkari katoliku batek etzuen egia ixildu, edo egia itxuran gezurra

saidu. Artikulu batek, zenbaki baten erretzea ta zentsura irabazi zizkion. Andik aurrera etzegoen ezer egiterik. Baina etzen ala gertatu. Garai berean gogor ari zen Frantzia Argelia'n bear etziren eta inolaz ere onets etzitezken "reéducation"-ak egiten. Cuba'koa berebat: "La Quincena" poliki mintzatu zen oni buruz kristau dotriña ta egiazko irakasgaia azalduz. Kristau diranak joka dezatela kristauki. Itxu etziren denak konturatu ziren...

Onela, gizonak eta gertaerak edo jokabidea kritika ez baditezke ere, gutxietan gertatzen da beste ainbeste ideiekin.

Eta au ere ezin balu? Beartzea zuzen-zuzen ez datorrenean, gizarteko sare ta mekanismuan bildua, izkutatua dagoenean, indarketa oro dira alperrikakoak. Kolpe denak aizeari ukabilka egitea dira. Orduan ere izan gaitezke aske. Askatasuna ez da nai duguna esatea edo egitea. Ideietan, bakoitzaeren askatasuna norberarena garbi ikustean ta jakitean datza. Eta batez ere nola dakien jakitean. Koaziñoaz auziak estekatzen eta inguratzen gaituanean, geure kritika-konziientzia zorroztu egin bear dugu. Begiak ideki, geureak eta albokoena al bada. Ez da gizonik lagun eta adiskiderik ez izaki. Aueri irakatsi egia. Aske izango da, barnean beintzat, gizon au. Ta besterik ezin badu, ez dezaioke inork geiagorik eskatu.

Mintzo nadin gizarteagandik datorkigun derriortzeaz, koaziñoaz. Euskaldunok gizon zentzudunak gera, baiña alditan itxutzen geran zentzu-

dunak. Aspaldiko urteetan gainera, oso gera minperatu eta itxutu. Ba-ditugu gai batzuk, inork ere iku ez ditezkenak: etimologiak, euskeraren garbia... t.a. Nora goaz orrela? Au ez da gizonaren burubidea. Nañotzen ari gera. Onela edo ala pentsatzen baduzu, esazu, esaitzazu, zure arraioinak eta kariak. Onetsiko dugu zure iritzia, ala baderizkiogu, ta bestela gauden geldi. Ez asi iskanbillan, urruka. Pasiotik, berotik ez dator argirik. Gorrotoa, ezin-ikusia, erra, sortzen ari gera. Euskaldunak denok ez izanik ere, adimen itxiak gera. Euskera ala edo onela izan bear du: nik diok, eta beude ixillik beste denak. Euskaltzaindia au da, ta X bestea da. Zuk zeuk etzerruke otzean orrelakorik esango. Ta baldin badira ere, zer ajola zuri ta neri? Zuk esanagatik orainartean bezelatsu segituko dute oiek. Egia deadarka edatu bear da, teillatuetatik eta tontorretatik Ebanjelioak esan bezela. Baiña ez aaztu dognak gutxi direla, ta geiago geiago bear badire izango dugula nork emana, guk ortan eskua sartu gabe ere. Intelektualak, zerbait eskolatuak eta ikasiak, ez dakienari irakatsi egin bear dio dakientzkoa, ots, kultura egin bear du. Euskalerrriak ez du zerez aserik, eta guk eman bear diogu. Euskera garbian edo ez ain garbian, baiña aguro. Aguro, aguro, aguro. Ez idatzi emendik eun edo berreun urtera izango diren euskaldunentzat. Oraingoeri eman bear diegu. Zer dakigu aiek izango diranentz? Ta ain kaskar izango al dira, nork emanik ez izateko. Euskal-kultura egin bear dugu. Euskera gar-

bia iristen ez denean, ontarako balio ez duenean, ez ain garbiarekin. E_un pentsamendutatik, larogei ta emezortzi euskera garbi amorratura jo gabe adieraz omen ditezke. Bai, kuantu. Baiña gu pre-saka gabiltz eta eunetatik eunak esateko bidea bear dugu. Gaiñera zenbait euskerarekin kultura asko ez egitea ba-diteke, idatzi duenaren buruan ezik...

Gure errikideek egiten dizkiguten kritika askok atzera botatzen gaituzte. Sarri, okerrago dena, ezin jasan dute au edo ori hatzuek, eta aalak eta bost egiten dizkigute aren ixillarazteko. Beste ezertxo gabe, begitan futelako bakarrik.

Arerioak dituzunean, ez gibelatu, ta jakin nola jokatu bear duzun. Egiari begirunean sor zaio, eta ez, arren, gezurrari makurtu, dirua edo bizibide onik badakarkizu ere. Naikoa aizun ba-du munduak leendik.

Oraindik ez dire bi urte, Iparamerikan gertaldi batek autsa pranko arrotu zuela. Princeton University'ko ikasle katolikoek kapellaua, F.Hugh Halton, iraizia izan zen bere kapellaugotik. Au zen dena. 1952'an kapellau izendatu zute-nean, 375 ikasle katolikotatik ia batek ere etzuen federik. Gogotik asi zan Halton lanean ta ikasleekin gutxi bailu, beste erri batzuetan ere mintzo zen, Unibersidade artan irakasten zituzten gezur eta makurretzaz. Irakasten ziran dotriñak arras ziran beltzak ia oro. Ikastetxe artan etzan irakasle katoliko bat ere. F.Halton'ek bear beze-la jokatu zuen: Alegia, entzun nai zionari ideia

garbi ta zuzenak emanaz, orobat besteen kritika eginaz, Etzuen inor bere ideiaen onestera bear-tzen. Alabaiña, jokaera au etzetorkeen ondo Goheen, Stace, Elderkin, eta Fletcher'ek irakatsiarekin, eta F. Halton aizatua izan zen. Denok omen dugu okerrean eta gezurrean egoteko eskubidea, Princeton'goak ziotenez. F. Halton'ek etzuen nunbait...


Beno, emen etzaigu ajola Halton'ek zuen edo etzuen deretxorik; baiña esango nuke nik eredu jatorra genukela koaziño garaian.

Gizartean une bat, toki bat betetzeko guztiori eskatzen bazaigu gizatasuna, egiaren zuletasun ttinta bat baikeræ, areago gizadiaren zuzendari diranei: landueri, ikasieri. Orregatik gaur-egun intelektualari dei, bokaziño berezi bat eska dezaiokegu: gizartea erroetatik aldatzerakoa, okerra dagoena zuzentzekoa. Joan ziran mundua maixeatzen denbora xautzeko garaiak. Mundua, egia-ak, gerok egin bear dugu, edo moldatu beintzat. Ontatik aldentzea den oro oben zaiguke, pekatu geure erriaren kontra. Gudu odol jarioa, edo kritika otsandia baiño onuragarriagoa da askotan lan apala, gerora piztuko den argia antolatzea. Intelektualak ez luke arreta izpi bat ere izan bear komunismua aitatzen zaionean. Gaur, zerbait egin nai denean, berealaxe etortzen zaizkigu denak: "Ori komunismua da", "komunismuari ateak zabaltzen ari zera"-ka. Etxean plater bat austen badu umeak, ura ere Mosku'tik zuzendua ta agindua izango da. Nola ez?

Baifia bi kolore ez beste denak illundu al
zaizkigu ala? Zergatik izan bear du gaur guztia
gorri edo zuri? Nun daude besteak?

Eta batez ere: gauza onak, komunismuari
ikasiak badira ere, onetsi egin bear ditugu. Ona,
on bada, ontzat eman. Eta artu.

Azurmendi'tar Joxe, ofm.
- Erriberri'koa -



TEKNIKA JAINKOAREN AURKA ?

Jainkoagandik urrun ote dijoa gizona teknika bidetik? Askok ala uste dute eta orrela sortu da jainkoagabeko gizakunde baten amets zoroa. Teknikaz jasotako mundu berri orretan ez omen da Jainkoaren bearrik zorientsu izateko; ala digute, esate baterako, komunistak.

Beraz, jakintza-gaietan aurrerapen bereziak egin dira aspaldian; baiña onek ez du esan nai Jainkoa aaztu egin bear dugunik. Zergatik ez orduan teknika Jainkoaganatu, bizi berri bat emanaz? Galdera oni ondo dagokion erantzun zorrotzak autsiko ditu gure buruan darabilzkigun kezka guziak.

GAURKO MUNDU-EGOKERA.

Bi gauza ikus ditezke garbiro egungo gizadian: batetik teknikaren aurrerapenak eta jainkogabeko gizadi ametsa bestetik. Nai ta naiez, XX mendeko gizadia izango da ondorengoentzat jakituri-egikerari bultzadarik garaiena eman diona. Eta gero ta aurrerago dijoa gaurko gizona egin bear orretan. Nolako aldaketa datorren emendik mundu guziarentzat! Egun, teknika-egikerak bazter guzietara eltzen dira. Onek

sortu du, nik uste, gaurko gizonaren arrokeria. Eta ortik datorren oia auxen da: "Aski du gizonak bere buruarekin, utik, Jainko tzar ori!

Ez du gaur bezela beinere gizonak bere aunditasuna ikusi. Or daukagu komunismua adibidez. Baina nundik datorrio gizonari aunditasun ori? Marx'ek zionez: zenbat eta teknika-gaietan aurrerago, orduan eta Jainkoagandik urrunago.

Dirudienez, teknika ta jainkogabetasuna bat-batera sortuak dira. Dana dala, bi gertakizun auen zer-ikusia azaldu baino leen gauzatxo bat esan nai nuke: gaurko gizona, teknika-gaietan inguraturata bizi danez, aurrerapen oiei erantzungo dien erlijio-egia ez du ain garbiro ikusten. Orra ba korapilloa. Eta mundu-egokera berri au gizadi osoaren pentsakera aldatu naian dabil. Txarrak ote dira orduan teknika-aurrerapenak? Bai zera! Nik uste, orain ain egon-ezina dakusgun jakituriguda onen ondoren, bizi berriz jantzia azalduko zaigu Kristaigo osoa. Gaur arrokeriz beteta dabilen teknika oni ere etorriko zaio apaltasun-garria, munduaren aunditasuna ta Jainko altsuaren izena nabaritzen dituan egunean.

TEKNIKA ERLIJIOAREN ERAGOZPIDE?

Askok ezin dute ulertu nola arkitu diteken oraindik ogeigarren mende onetan jakintsu kristau zintzoren bat. Erlijioa antzinateko zerbait da oientzat; ordukoari ondo zetorkiona; baina ez gaurko gizonari. Ba-dirudi teknika sortu duan arrokeri orregatik gizonak Jainkoarekin zer-ikusirik ez daukala esan nai lukeala. Alaxe da, ba. Gizonak, berak bakarrik egindako munduan bizi nai du nunbait...

Gauza izugarriak ikusten ari gera. Izadi osoa aldatu naiean dabil gaurko jakintza. Begira nolako uri berriak sortu diran; nolako lanak itxasoari parra eginaz; nolako aldaketak baso eta mendietan. Orregatik, gaurko gizonak alde guzietan bere eginkizunak arkitzen ditu. Ona emen arrokeriaren jatorburua. Alde guzietara begiratuaz, gizonak bere irudia ikusten du ispillu batean bezela; eta ispillu orretan bera bakarrik. Beraz, zeruak Jainkoaren aunditasuna abesten badu, makinak gizonarena gorestu naiean dabiliz.

Gaurko gizonak mundu zoragarri baten gilitza eskuetan daukala dirudi. Bere aalmena gero ta aurrerago dijou. Beti ari da indar-iturri berriak bereganatuz. Zoratu egin bear du pozaren pozez.

Antzinateko gizona ar-zuloetan bizi zan garaian, izadi asarreak bere oinpean zapaldu naian zerabilkilla dirudi. Bildur onetatik sortu omen zitzaion gizonari, Marx'en jarraitzaillak diotenez, Jainko aizun baten-gananako sinesmen txotilla. Eta gaurko gizonak ez omen du olako Jainko bearrik; berak bakarrik iritxi nai du askatasun osoa.

TEKNIKAREN EGLINKIZUN ETA BIDE BERRIAK.

Urte gutxi barru, gizonak idoroko omen ditu indar-iturri gelenak. Beste amarreko batzuk geroago, mundu guziaren jabe egingo omen da, ala diote beintzat. Eta ez gu bizi geram mundu kaskar onen jabe bakarrik, or zeruetan zear dabiltzan izar oiena ere bai. Baina au bizigabeko izadia da oraindik. Urrengo pausoa biziaren ixil-gorde naia askatzea izango da. Egi ezkutu orren atzetik dabil aspaldian gizona: nola egin dezaket bizidun zelula berri bat? Baina orainarte biziak bere eskuetatik iges egin du. Au izango litzake gizonaren asmakaririk aundiena eta onek emango lioke bere bizi luzatzeko eskubidea. Zein amets zoragarria! Zer geiago bear du gizonak mundu onetan pozik bizitzeko? Zertarako bear du orain Jainko ezerez ori? A, nolako zoriona egun artan! Baina bizia luzatuarren, beti agertuko azkenean eriotza. A, ze samina! kanpoko gauza guzi oiek eskuperatu nai ori ez da betirako izango.

Mundu berri ori lortzeko gairik onenak artu bearrean arkitzen da gizona. Ontarako, teknika alorra bereganatzean bere burua berritzea izango da urrengo eginbearra. Biologian agintaritza lortzen duan egunean, ots, bere gorputz soil onen urteal luzatzeko eskubidea iristen duan garaian, a ze nolako poza. Orduan bai poza ta zoriona gizonarentzat.

Au da gizon askotentzat egungo gizadiak iritxi bear duan jomuga. Orregatik, gaurko giza-bizikeran gauza guztien balioa arau orrekin neurtzen da: "Au ona da orretarako; beste ori ez".

Ona emen gaurko gizonaren "egia". Ez du ezer nai. Erlijioak azaltzen dion EGI geldi ta legor, ezertarako balio ez duan orrekin. Eta orregatik animeko edertasunak, teknikarekin zer ikusirik ez daukanez, ez du batere balio. Gaurko jakituria beste bidetik dioa.

Baina teknikaren mugarriak motz gelditzen dira gizonaren amets ondoan. Jakituri orren mailak nai baiño len bukatzen dira. Gaur bertan ikusten dugu au erririk aurreratuenetan. Gizonak bere burua ikusten du teknikan, baina onekin presondegi aundi bat sortu duala deritzaio. Gero ta aundiagoa... Baiña presondegia. Au amets goxo aien ondamendia!

Ara ta onera ibilli arren, beti argala dager gure gizonttoa. Bakarrik ikusten du bere burua, naiz ta ederrez inguratuta egon. Eta bakartasun orretan, galdera bat dator bere ezpainetara: Au dana zertarako? Zer da au? Nundik dator? Nora dioa? Eta ni... zer naiz ni? Galdera negargarriak. Or bukatzen dira teknikaren eginbearrak; jakituri motz orrekin bakarrik gizona beti giltzapean. Teknika beti azaletik dabil, baiña ba-dira ikusten ez diran gauzak ere. Ortik dator kio gizonari ase eziña. Eta gaiñera, bere aurrean ikusten ditu teknikak sekula sendatuko ez dituan eriotza ta pekatu-miña. Kristo'k dakarren bizia ezagutuko balu...

GIZONAREN JAINKO-EGARRIA.

Gaurko gizona bildur da. Egin dituan gauzak aundiak dira; Egin nai dituanak aundiagoak. Baiña zertarako? Ez da naikoa "gauzak egitea" besterik gabe. Zertarako diran jakin bear da. Baiña kezka au ez da gaurkoa bakarrik. Leonardo de Vinci'k ere ba-zekian zerbait gai onetaz. Beti zeukan arek asmakizun guzien gaiñetik egiazko arau baten epai zorrotza. Baiña nundik arau ori? Gaurko gizonak ez dio oni erantzun nai.

Gauza asko ondo ezagutu arren, beti dator kio burura gizonari alako "nik ez dakit zer" bat. Or bukatzen dira teknikaren mugak. Eta gero zer? Ezer ez? Ez dakit, baiña ez nuke nai, dio samiñez.

Ara ta onera ibilli arren ez du onek ase-

tzen barnean somatzen duan betiraun-egarri ameskorra. Norbere buruaren jabe ez izatea negargarria da, dio berekiko.

Or dabil komunismua maltzurkeriz beterik bere eginkizuna bete naiean ta biarko gizadiari bizikera zoriontsu bat antolatu naiean. Urteak etsieraziko diote.

Mundu eder onen amets gozoa, Jainkoagana-ko dei ixil bat besterik ez da. Baiña, ez du ori aitortu nai gaurko gizonak. Bere barruan nabaritzen du, ala ere, egarri iraunkor bat. Zer da ori? Ikusi du nunbait mundu guziaren jabe egiñarren, bera beti "beste batena" izango dala. Mundu au indar-naasketa bat besterik ez ote da ba? Beste izadi baten señailea besterik ez? Eta beti, gizon animetik baten bat gurtu-nai sutsua. Jainko izkuttua? Zer da, zein, nun dago Jainkoa?


Jakintza alorretan gizonak egin dituan aurrerapenak, arrokeriaren gainetik, bere ezereza azaldu diote. Teknika idorokunde auek erlijioari on aundia egin diotela deritzaiot. Gezurrezko mirariak etzaizkio geiago Jainkoari kakotuko. Obeto ikasiko du gizonak Jainkoaren oiñatz maiteak ulertzen, ba-dakialako noraiño dijoan teknikaren aalmena.

Teknikak gizonaren aunditasuna dagerkigu. Baiña, ori dana Jainkoaren aintzarako dijoa, Berak egindako gizontxoak ez badaki ere. Ez dugu egon bear bildurrez aundiegi egingo ote geran edo... Batzuk uste dutenez, gizona oinperatu bearko dugu Jainkoa goresteko. Ez, zenbat eta aundiagoa, orduan da maitagarri ta bikaiñago azalduko zaigu Jainko altsua, bere egille ta jabea.

Ona ba gizadiaren eginbearra: Teknika Jainkoaganatzea. Guk ere alegiñak egin bear ditugu mundu au alik eta ederragoa izan dedin Jainko altsuaren jauregi lez. Gaurko eleiz berriak ere, egungo "anima" berri au jantzi nai dute. Izar arteko mundu zabal au ere neurtu bedi Jainkoaren aunditasuna agertu dedin. Gaur arte ezagutu etziran indar berriak ere eskuan ditugu. Orregatik, gaurko Eleizak ba-dauka zer-egiñik gure mundu onetan. Berak iriki bear ditu Jainkoaganako bideak

teknikarentzat. Ain gaizki izendátzen dugun "mundu berrizale gaizto" au ere zerurantz biurtuko da eta Jainkoari zor zaion gurtza egokia ere pozik ordainduko du gauza guztien gidari egin dän gizonak.

Ulazia'tar Yon, ofm.
-Arantzazu'koa-



ARANZADI - UNAMUNO'TAR TELEFORO _____ (1860-1945)

Aurten betetzen da euskaldun jakintsu au jaio zaneko eungarren urtea. Bergara erriak ipiñi zion lenengo seaska. Baiña zenbatek dakite Aranzadi'ren berri euskaldunen artean? Zoritxarrez, inor gutxik. Ori gertatzen zaigu euskaldunoi, ez ditugula ezagutzen gure "gizonak". Bai, orrelaxe diot: gure "gizonak". Orain eun urte sortu ziranak, eta oraintxe bertan itzaltzen ari zaizkigunak.

Lan ontan Buska Isusi'tar Joxe Mari jaunak aurreko ilbeltzean argitaratu zuan artikuluari jarraituko diot.

Berak aitortzen digunez, ez omen zuan ezagutu euskaldun jakintsu aundi au, baiña alare bereganako begirunerik agurgarrienaz, bere adiskiderik onena izan balitz bezela eskeintzen dio bere idaz-lana. Gaiñera biak langintza batekoak izatea tokatu da.

Aranzadi'ren izena ezaguna da Europa'n zear. Eta eusko edesti-aurrea (prehistoria), antropologia edo folklorea ikasten asten danak, bere lanekin topo egingo du.

Gizon azkarra ta argia zen, zorrotza ta langillea. Miguel Unamuno filosofoaren lengusua zan eta ark bezela lan asko egin du gure jakintza ta kulturaren alde.

Telesforo jaunari dagozkion anedotak eunka dira. Jazten etzan, ai danez, dotorea; soinez melar eta igarra, ta jenio bizikoa.

Bere lan izugarriak gure aldizkari eta kanpokoetan gelditzen dira. Bere dibujoak ikusgarriak dira. Ugariak ditu besteekin alkartasunean egindako lanak. Batez ere, Eguren zanarekin eta oraindik, Jaungoikoari eskerrak, bizirik degun Barandiaran'tar Joxe Miguel apaiz jaunarekin batean egindako lan ederrak.

Aranzadi'k benetako bokazioa, deia, izan zuan bere jakintza lanetarako. Apaiz bat bezela konsagratua egon zan jakintza gauzetarako, lurreko ondasunen gora-beerak alde batera utzita.

Jakintzako leialtasunak eskatzen zionez, etzan beñere geiegizkorik esatera ausartu, baidetik beti gutxiagokora jotzen zuan bere afirmazioetan. Ez baidute orrela egin jakintsu guziek. Eta orregatik bere lan aundiak eta asmakizunak ez ditu inork zalantzetan ipini, beste zenbait alderdietan azaldu diranak bezela. Etzuan inoiz ere errexenera jotzen. Gauzak argi ta garbi agertzen etziran artean, ixillik egon oi zan, eta ondo aztertu ondoren bakarrik erakusten zuan egia, arkitu bezela.

Bear bada berak asko uste izan gabe gaia ugari utzi die ondorengoei, euskaldunen leen-jatorria nundik norakoa izan dan jakin nai dutezentzat.

Aranzadi'k etzuan gaiztetsi ezertso ere jakintza gaitetan, danetan arkitzen zuan zerbait jakingarri. Barandiaran eta Eguren jaunekin egin zitun eusko-edesti-aurrearen azterketak gerokoentzat giltza arrigarri bat bezela izango dira.

Millaka euskal buru-ezur neurtu zitun; gure "uztarriaren" zabal-bidea (noraiñokoa) biltzen saiatu zan, gure "gurdiarena" bezela; gure mendietako zizak klasifikatu zitun, eta eztabaida gogorak euki zitun gure abere ta landareen izenetzaz. Esaterako, "katamotz" itzak "tigre" esan nai duala entzuteak bere onetik ateratzen omen zuan. Gure aurrak jolaserako erabiltzen dituzten kurkulux (tabak) eta perinqlak aztertu ziran, eta orrela beste amaika gauza.

Eun-urteak ondoren praktikurik izan nai badute, zerbait tajuzkorik egin bearra dago. Ai

danez, Aranzadi beraren izeneko Elkargoak ba-du Telesforo zanaren omenez zerbait aintzagarri egiteko asmoa. Bere bizitzaren berri emanaz liburu bat eskeintzeko asmoa du, omen-agiri bat bezela. Ederki. Merezi du-ta bergarar jakintsu onek.

Joxe Mari Buska jaunak berak agertzen du kezkatxoa. Oraindik orain jakin omen du "Prehistoria sekzioari" -Joxe Miguel Barandiaran apaiz jauna du buruzagi, gure aberritik kanpora ezagunak diranen artean jakintsu bakarretakoa bera-ba, "edesti-aurreko" sail orri len 25.000 pesetako zeukan zubentzinoa, 5.000 pesetara jetxi omen diote. "Ori jakin da bi egunera, Iparamerikar batekin nintzan maian -dio Joxe Mari jaunak-, eta ari giñala ari giñala, munduko kultura arazoetan sartu giñan. Nik 5.000 peseta auen gora-beera aitatu nionean, biotza gelditzera zijoakiola uste nuan.

"Berak auxe esan zidan: 83 dolar Europa'ko erririk zaarrenaren prehistoria aztertzeke...! Ezin zuan siñistu. Ta ala zion: Ameriketako edozein unibersidadeetan arkituko dezute ortarako dirua.

"Ain zuzen ere, ez dira txanponak bear bearrezkoenak ortarako, baizik gogo-zabaltasuna (konprensioa) ta inguru-giroa (ambientea) edo zaletasuna. Gure aurrekoen ezurrak eta arriak or egongo dira beren ar-zuloetako pakean, bere atezaiak xaguxarrak dituztela.

"Lurpetik ateratzen baditugu, bear bezela egin dezagun, aztertu ta Museoetan ipintzeko; baiña ez dezagula Museoak itxi bearrik izan, bertan jarritako ezurrak izenik gabe daudelako."

Aranzadi'k Barcelona'n igaro zituan bere urterik oparoenak; bere lanak sari asko sortu zizkioten, bai Madriden eta bai Paris'en. Lan batzuk alemanera itzuli dizkiote. Munchen'go Antropoloji-Elkargoaren Urgazle zan.

Azurmendi'tar Yon
-Arantzazu'koa-

SALBATORE KANDAU

(1897-1955)

Japon'en bizi izan dan atzeritarrik ospetsuena, euskaldun bat dugu. Aita Salvatore Kandaü baxenabarreko Donibane-Garazi'n jaio zan 1897'gn. urtean. Paris'ko "Atzerri-Mixio" etxean bukatu zitun eskolak, bertan apaiz egiñik. Izkuntzak ikasteko errestasun berezia zuan gizon onek. Japoitarrena oso ederki beretu zuan. Beste idor gutxik bezela idatzi ta itzegiten zuen japoieraz.

9.000.000 irakurle.

Mundu guztiko izparringirik aundienak Japon'en daude: Asahi (9 milloi alekin), Mainitxi (7 molloiekin) eta Yomiuri (5 milloiekin). Japon'en egunero 135 izparringi argitaratzen dira. Banetara, 35 milloi ale. Ba-da, beraz, irakurtzeko gosea Eguzkiaren Menderrian. Ta radio, telebisio ta zineman ere Japon lenengotakoa dugu. Ori guzti arren, katolikoak ez dira 250.000 baizik.

Aita Salvatore Japon'eko periodistarik onenetakoa izan da. Ango periodikorik aundienetan argitaratzen zizkioten bere lanak. Au da, 9 milloi irakurle ba-zitun gutxienez. Gainera telebisioz astero agertzen zan japoitar askoren aurrean. Bere izena propaganda-orrietan azaltze utsarekin betetzen ziran batzokiak eta saloiak, bere itzal-diak entzuteko. Japon'era sartu izan dan gizonik ezagun eta maiteena bera da, bertako gizon nagusi-enak aitortzen digunetez.

Mixiolarien bearrean arkitzen da Japon, gaur batez ere. Aurreko Gerra Aundiaren ostean, guda galdu zutelarik, noragabeko gau illunean gelditu dira japoitar asko.

Japon'ek 90 milloitik gora biztanle ditu. Urtero milloi batez bakarrik azitzen da, iru milloiez geitzen joan bear lukena. Jaiotz-kontrola edo aur-galaztea bildurgarria da Japon'en, gobernu-legeak bere alde ditula.

Antxiñako siñeskerietan erabat galtzen dijoa fedea japoitarren artean. Eta eztute eza-gutzen benetako siñismena. Aita Kandau'k argi ugari zabaldu du Japon'eko gizartean. Benetan jatorra genuen gizona! Buru argi ta zabalekoa, biotzez aundi ta errukitsua. Sakonetik ezagutzen zuan japoitar anima, eta maite bere izate osoaz maite zuan. Ortarako beren izkuntza ondo ikasi zuan. Ez omen zitzaion igartzen, itzegiterakoan, kanpotarra zanik. Eta arritzekoa! Ez baita gauza xamurra olako errextasun zailla iortzea. Bertako janariak ere oso gogoko zitzaizkion. Itz batez, bertako bizimodua oso-osorik bereganatu zuan, bere apaiz-katoliko-izateak uzten zion neurrian. buropatarrontzat bere itzaldiak eta esakunak ari-negiak bazirudien ere, berak ondo zekian entzuleak eskatzen ziotena ematen ari zala.

Menderri osoa dolu-miñez.

1955'ko agorrraren 29'an, goiz-goizetik, Asahi egunkariak berri au eman zuan bere lenengo orrialdean: "Japon bere biotz-ondotik maite-maite izan duan gizona il zaigu, Aita Salvatore kandau. Gure edestiak eztu beste inor aitatzen, bere eriotz ostean japoitarren artean onenbeste negar eragin duan kanpotarrik".

Bezperaz radiotik eta telebisioz zabaldu zan berria. Arratsaldeko egunkari guziak ere barreiatu zuten gertaera au. Borzketan gizatalde izugarriak jarraitu zioten illerri bidean. Lenengo errenkadan agertzen ziran ministro ta enbajadore jaunak, Auzitegi Nagusiko Ministroa ta bonzoak beren soñeko aundiekin; Enperadorearen arreba txikiena, Takamatsu erregin-alaba ere antxe zan. Japoi erri osoak egin zuan hegar bere lagun eta adiskiderik onena galdu zuen egunean.


Bere liburuak "best sellers" oietakoak dira gaur Japon'en. Iru liburu utzi ditu nagusienak: "Ein no Kossaku" ("Betirako Idazti Jatorrak"), "Xiso no Tabi" ("Gogoetak Egan"), "Mun-

duaren bestaldea ta zuzen-aldea" (prantsesez).

Orain ba-dakit ze galdera egingo zenidaken. "Eta Aita Salvatore mixiolari ospetsu orrek euskera ikasi al zigun? Idatzi al du ezer euskeraz?" Eztakit. Ez nizuke, ez baietzik ez ezetzik esango. Bakar-bakarrik, Japon'en ibilli izan dan guzian, beti euskal txapel aundia bere buruan jantzita oraman oi zuala. Euskal-itxura nabarmena zuan naiz arpegi aldetik naiz espiritu aldetik. Buru gogorra zala ba-dakit. Baita izan bear ere japoitarren izkuntza ain ondo ta garbi menderatzeko.

Azurmendi'tar Yon
-Arantzazu'koa-





ELKARRIZETA

"TXILLARDEGI"-rekin solasean.

YAKIN'en jaiotza orduetatik irakurle zaituztegunok ezaguna duzute, noski, Txillardegi idazle gaztea. Gure belaunaldiko dugun idazle oni galde-
ra-sail bat aurkeztu diogu. Ona emen berak esan dizkigunak.

- Zer derizkiozu YAKIN errebistari?

- Orrelako bat bear-bearrekoa dugula uste dut. Begi onez ikusten dut zuen aldizkaria, batez ere darabilzkien asmo ederrengatik. Bere ontan iraun nai badu, kultura derriorrezkoa du euskerak. Onengatik zuen asmoak ezin obeak ditugu. Ba-liteke zuen lan ori oraindik EGIN gabea, umotu gabea izatea; baiña egin duzutena baiña geiagotara iristeko gauza zeratela uste dut.

- "Iritzi billa"-ri erantzun dioten zenbaitek, leenen alaetako joera-edo aldatu egin dugula esaten dute. Zuk ere berdin pentsatzen al duzu?

- Bai, noski. Aldatu egin da YAKIN zenbait gauzatan. Euskera batez ere.

- Onerako?

- Bai uste dut. Leenengo lan batzuetan erabili zenuten izkera ura, zerbait gozatu duzutela deritzat, agian nai ainbat ez bada ere.

- Oraingo euskera ulergarriago zaiela ere esaten digute batzuek. Zuk zer diozu?

- Baietz. Ez dut osorik irakurri oi. Baiña ala esango nuke.

Euskaltzale geranok ez gera konturatzen; baiña egia tristea au da: Euskeraz ondotxo dakitena ez dituztela gure izkribuak ulertzen. Leen, berriz, Axular'ek, Mendoburu'k edo Kardaberaz'ek idazten zutenean, edozeiñek uler zezakean geiena.

Alde batetik erri-euskera auldu eta eskastu egin dalako: dudarik ez. Baiña bestetik ere asmatu egiten dugulako, ikasi bearrean.

Oraindik euskaldun jatorrak itzegiten duten izkuntzatic urruti gabiltza oso. Eskoñarik ez dugula-ta esateak alde bat azaltzen du, noski; geiena segurki. Baiña ez da kakoa alere. Euskaldun

jatorrak ez du irakurtzen; baiña bai entzuten. Alabaiña, gure libururik geienak euskaldun jatorrai goratik irakurri (neureak ere bai, zoritxarrez) eta, nik aginduta, askotan ez dira konprenitzen.

Konzeptua zaila edo berria danean ez ulertzea normala da: koska ez datza izkuntzan, idean baizik. Baiña gu geienok, gauza ximple eta erre-xak idazten ditugunean ere, gutxi ententitzeko moduan azaltzen ditugu. Eta au, zalantzarik ez, akatx aundi bat dugu. Orrek adierazten du euskeraz ez dakigula. Frantsesak ententituko ez balute, frantsera dala esango al genuke ba? Gure eritasun kaltegarri onetan ez dago ez eskolarik eta ez ezer olakorik aipatu bear. Geronek daukagu kulpa. Naturaltasunik eza besterik ez da.

Eta naturaltasun ortatik asi bear. Bestela konturatu orduko ondotox ibilliko da gure sasi-euskera ori euskaltzaleen apaletan aaztuta. Baiña gure aetatik aldegiña, aldendua; ots, ILLA.

- Zein izan da YAKIN'en akatsik okerrena? Zein da gaur-egun?

- Gure literatura guzian aurkitzen diranak. Euskerari buruz, askoren berrizalekeria; mamiari buruz, agian, alako oztasun-itxura bat. Bietan aurrera zoazte eskierki.

- Bizi diranetatik zein idazle emango zeniguke eredutzat, batez ere euskerari begiratuta?

- Ez da errexa, alajaiñetan! Iru oar-edo egitea barka zaidazu.

a) Euskerari buruz, au da, izkuntzari batez ere begiratuta, ez dut inor ikusten gaur bizi dani ere du jartzeko. Agin lapurteraz idazten duen bat edo beste. Baiña ba-dugu bat, egia esan, eta berakin ezin diteke INOR alderatu: Axular. Ez da bizi, baiña bizirik egon bearko luke guziongana.

b) Mamiari buruz: oraindik asieran gaudela. Oso gutxi dala gure elertia. Eta, batez ere, itzulitako literatura euskeraz egonarren, etzaidala iruditzen euskal literatura.

d) Alere ASI egin gera. Eta dugun onena aipatuko dizut.

Antzerkian ba-ditugu bi, onak: Monzon eta Lartzabal. Nere ustez oso egokia da alde guzietatik egin dutena. Euskera onena bi auek dute, nere

ustez, gaurko idazleen artean.

Nobelagintzan, bi aipatuko nituzke: Etxaide eta Erkiaga. Oraingoz ez dut uste beste bion maillan daudenik. Loidi ere ondo asi zan "Amabost egun Urgain'en" ematean; baiña nobela bat ez da aski nobelari egiazko bat izateko. Jean Etxepare, Donapaleutarra, ondo asi da, eta itxaropen da.

Saioan urrats eder bat eman dugu Inñurritza' ren bidez. Unamuno'ri buruzko bere saioa euskeraz eta seriotan egin dan leenengoa da, eta nere zorionak eman nai dizkiot orain. Tamala da itzegiten duen euskera ez erabiltzea liburuetan.

Olerkian, bat dugu gailen: Orixe.

- Ta YAKIN'en gai berdintsuak erabili dituztenetatik?

- Egia esan, ez naiz gauza galdera au ondo erantzuteko.

- Errebista zeure eskuetan bazeneuka, zein joakaera ezarriko zenioke? Nola nai zenuke, zeure gogo utsari begira, YAKIN?

- Ontaz luze xamar mintza nakizuke. Euskal literatura bat sortzera zuzenduko nituzke nik indar guziak. Begira gure inguruko izkuntzetara: oiek literatura bat sortu dute, sortu eta osatu. Bikaintasun eta gaillentasuna dituen literatura bat. Begira zazu gurera: Zer daukagu? Gizaldiak eta gizaldiak joan zaizkigu ia ezer egin gabe; eta esnatu geranean izkuntzari begira lilluratu-ta, ao-zabalik gelditu gera.

Egia esan, euskal elertia egiteko dago oraindik. Leenen ZERBAIT esan bear dugu eta gero euskeraz esaten saiatu. Izkuntza bidea da, ez elburua. Jomuga ortara bultzatuko nuke YAKIN:aldizkaria KEZKA BATEN ONDOREA izan dedilla, eta ez beste aldera. Estriña, barne-leia ori bear duzute: Gaiñerakoa orren ondotik etorriko da. Ez dezaiogun, arren, gure lanari teillatutik ekin. Ezer esan BEAR ez duenak, ez du idatzi bear. BEARRAK eragin bear gaitu, ez euskera utsak.

Unamuno, Mann, Camus, Mauriac, eta abar eredu-tzat; baiña ez beren obrak kopiatuz, jokabidea baizik. Egiazkotasuna, zintasuna: Orra bide bakkarra. Bizitasuna bear du gure elertiak. Eta gaurko kezkek eta katramillak gure liburuetan ixuritzen ez badira, Ez gera asi ere egin. Ez di-

ra gaiak alere bortxaz, ez: SENTITU egin bear dira NORTU, barnea astinduta. Eta gero, eta ezinbestean bezela, norberaren burua ezin eskuraturik bezela, "erdi-bearrak" estututa eta eraginda, idatzi. Lizardi'k esate baterako, auxe sentitzen zuen. Eta au bere barnean nabaitu ez duen idazleak ez du ezer onik egingo. Ezegin dudarik.

Orrengatik oso artifiziale deritzat aspalditan idatzitako geienari. Euskera utsa egiten jardun gera (eta ez zienziari dagokion moduan geienetan...) eta ez dugu bear aña aurreratu. Narzismus aul eta inocho batean dardaratu gera. Arren: Leenen mamia, eta BIDENABAR euskera. Ez alderantziz.

- Ta izkuntzaren aldetik zer eskatuko zenieke YAKINlarieri?

- Naturaltasuna, eta euskera zaarrari bertagotik jarraitzea. Ontaz itzeginik naiz. Orainarte euskaldunok erabili ditugun kontzeptuak emateko ez dago ezer asmatu bearrik. Are gutxiago gramatika-arazoetan. Oietan IKASI egin bear da. Euskeraz idatzi nai dugu: Bai ala ez? Baiezkoan baigaitetz, daukaguna jakin bear. Ez bakoitzak euskera BERE kolkotik atera. Garbiagorik ur garbia.

Kontzeptu berrientzat, ordea, ez dugu etxean tresnarik. Sartaldeko kulturaz inutuak geranez, beste izkuntzak damaigutena jaso bear. Euskeraz asma baditeke itz egokiren bat, aurrera eta pozik. Baiña bestela, erderetara; eta pozik ere.

Euskera, gaiñera, larri dabil. Iltzeko zorian. Eta leenengo erremedioa auxe da: dagoanari eutsi. Gero egingo ditugu txertoak. Oraingo salba dezagun eria, eta ez uxa bildutzez ondoratzen zaigun euskalduna.

- Beraz, labur-labur YAKIN'i eskatuko zenioke-na...

- Kezka sortzeko; ta kezka ori, euskeraz azaltzeko gogo. Baiña KEZKA aurrenik.

- Zer iruditzen zaizu euskerarentzat bearrekoena: Goi-goiko kultura edo "bulgarizaziozkoa" esan oi duguna?

- Premia aundiagoa du bigarrenak, dauden euskaldunak zerbait izan dezaten.

Leenengo mailakoa ere bearrekoa da. Baiña,

berriz ere, ASTINTZEN GAITUZTEN ARAZOAK azaltzen ez baditugu, sasikeritan ari gera. "El Diario Vasco"-k Santamaria'ren artikulua zoragarri bat ekarri du otsaillaren 28'an: "Buñuelos y soplillos". Euskal-idazle guztiak ondo aztertu bearko lukete. Berakin nator zearo.

- Zergatik leenbizi ori?

- Pausuka ibiltzen ez dana, ez dabil.

- Ez aal dugu, euskerari prestijiorik emateko, jakintsuengana jo bear, erriaren aurrean itxura onik izan dezan?

- Goitik ez bada, euskera ez da salbatuko.

Bai, ortaz.

- Zure gustoko dan aldizkariren bat...

- "El Ciervo" esate baterako. Bizia da, zirt-zart idatzia; baiña zinezkoa. Artikulu laburrak; baiña beti giartsu. Lan laburrak eskatuko nizkizueke. Nai bada, burutazio bat bakarra izan dedilla, baiña barnetik jaioa. Eredu on bat iruditzen zait zuentzako.

- Gaurko euskal-literaturaren joera, matxinada-aurrekoarena baiña egokiagoa dugu, ala ez?

- Erabat artuta, bai. Nere ustez gure literatura aurrera dioa, eta azkar gaiñera. Alere gure aurrekoak maiseatzea ez dago ondo: Gure belauna aurrerago iritxiko dala uste dut. Baiña berak ideki zuten alik ondoen ia asi gabe zegoan bidea. Eta danai, berakin bat ez etorrita ere, nere goratzarre au egin nai diet. Gure aurreko euskaltzaleak gabe, gaur ez litzake ezer izango.

- YAKIN'lariontzat bai al duzu beste zerbait esateko?


- IRAUN DEZAZUTELA. Irautea garaipenaren erdia da. Ekin ortaz, eta iraun.

oo oo oo oo

Auek dira Txillardegi gazteak esan dizkigunak. Ziur nago beste askok barnean ezin adieraziz geneukan zerbait ori argitaratu diguna. Eta eskatzen digun barne kezkatia su dezagunean, eusko bizi-arazoaren askabidean gerakela.

Beraz, sor dezagun kezka, ta gainera-
kioa ba-dator-
kiguke.

Intxausti'tar Joseba, ofm.
- Arantzazu'koa -



A R K I B I D E A

Atarikoa. 3

TEOLOGI - FILOSOFI - SAILLA

Aita Santuaren itza - Muxika'tar Errupin,
beneditarra 7

Teresa deunaren irakatsiak - Sekundino A.,
karmeldarra 13

"Berri Ona" etorri zauku - Arnaud Erdozainzy
Etchart, prantziskotarra. 19

Agerkundera ta Kristo - Osa'tar Eusebi, late-
randarra. 24

Chopenhauer edo zorionik-eza - Intxausti'tar
Joseba, Arantzazu'koa 31

Gorputz Mistikoa - Joxe Austin, pasiotarra. . 38

KULTURA - IAKINTZA - ANTZE

Ibsen - Olaberria'tar Ildefontxo, ofm., Erri-
Berri'koa 47

Adimen beartzea - Azurmendi'tar Joxe, ofm.,
Erri-Berri'koa. 57

Teknika Jainkoaren aurka? - Ulazia'tar Yon,
Arantzazu'koa 66

Aranzadi Unamuno'tar Telesforo [1860-1945] -
Azurmendi'tar Yon, Arantzazu'koa . 72

Salvatore Kandau [1897-1955] - Azurmendi'tar
Yon, Arantzazu'koa. 75

ELKARRIZKETA

"Txillardegi"-rekin solasean - Intxausti'tar
Joseba, Arantzazu'koa 81